DESGAITASUNA DUTEN EUROPAR BATASUNEKO EMAKUMEEN ETA NESKEN ESKUBIDEEN II. MANIFESTUA. EKINTZAILE ETA ARDURADUN POLITIKOENTZAKO LANABESA

EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE LA MUJER
Eusko Jaurlaritzako Erakunde Autonomiaduna
Organismo Autónomo del Gobierno Vasco

GIDA

23

EMAKUNDE
EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA

GASTEIZ 2012

DESGAITASUNA DUTEN EUROPAR BATASUNEKO EMAKUMEEN ETA NESKEN ESKUBIDEEN II. MANIFESTUA. EKINTZAILE ETA ARDURADUN POLITIKOENTZAKO LANABESA

Desgaitasunaren Europako Foroko Batzar Nagusiak 2011ko maiatzaren 28an eta 29an Budapesten onartua, Emakumeen Batzordearen eskaria aintzat hartuta

Emakumeen Europako Lobbyaren babesarekin

Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioaren argitan berrikusia

---

Gaztelaniazko bertsioak edizio honetakoak hitzez hitz eta osorik jasotzen du CERMI batzordeak emandako testua.

IZENBURUA: Desgaitasuna duten Europar Batasuneko Emakumeen eta Nesken Eskubideen II. Manifestua. Ekintzaile eta arduradun politikoentzako lanabesa

EGILEA: EMAKUNDE / Emakumearen Euskal Erakunde. Manuel Iradier, 36. 01005 Gasteiz

MAKETATZAILEA ETA KOORDINATZAILEA: ARRIN. Komunikazioa eta Diseinua

DATA: 2012ko otsaila

DESKRIBATZAILEAK: Ezinduak, berdintasunerako politikak

DISEINU GRAFIKOA: Ana Badiola, Isabel Madinabeitia, Ana Rincón

ILUSTRATZAILEA Ibon Garagarza

AURKIBIDEA

AURKEZPENA 7

HITZAURREA 11

ATARIKOA 15

SARRERA 19

1. BERDINTASUNA ETA DISKRIMINAZIO-EZA 27

2. KONTZIENTZIAZIOA, KOMUNIKABIDEAK ETA IRUDI SOZIALA 31

3. IRISGARRITASUNA 35

4. ARRISKU-EGOERAK ETA LARRIALDI HUMANITARIOAK 41

5. LEGEAREN AURREAN PERTSONA GISA BERDINTASUNEZ AINTZAT HARTZEA ETA JUSTIZIARA ERAGINKORTASUNEZ JOTZEA 45

6. EMAKUMEAREN AURKAKO INDARKERIA 51

7. KOMUNITATEKO BIZITZA 57

8. SEXU- ETA UGALKETA-ESKUBIDEAK 63

9. HEZKUNTZA 71

10. OSASUNA 77

11. GAITZEA ETA BIRGAITZEA 85

12. LANA ETA ENPLEGUA 89

13. BIZI-MAILA EGOKIA ETA GIZARTE-BABESA 95

14. AHALDUNTZEA ETA LIDERGOA 101

15. KULTURA, KIROLA ETA AISIA 107

16. ELKARRERAGINA, GENEROA ETA DESGAITASUNA 111

17. DATU-BILKETA ETA ESTATISTIKAK 117

18. NAZIOARTEKO LANKIDETZA 121

AURKEZPENA

1997ko otsailaren 22an, Desgaitasunaren Europako Foroan, *Desgaitasuna duten Europako Emakumeen Manifestua* onartu zen, Europar Batasunean berdintasuna eta diskriminaziorik eza sustatzeko. Orduan ere, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak manifestuaren berria jaso zuen bere argitalpenean. Hamabost urte geroago, bigarren argitalpena aurkezten dugu: *Desgaitasuna duten Europar Batasuneko Emakumeen eta Nesken Eskubideen II. Manifestua: Ekintzaile eta arduradun politikoentzako lanabesa*, Desgaitasunaren Europako Foroak onartua, 2011ko maiatzaren 28an eta 29an, Budapesten eginiko Urteko Batzar Orokorrean.

Desgaitasuna edo aniztasun funtzionala duten emakumeak gure gizartean ez daude maila berean: alde batetik, ez daude gizonen maila berean, generoaren eraikuntza sozialen ondorioz, eta bestetik, desgaitasunik ez duten pertsonen mailan ere ez daude; beraz, diskriminazio bikoitzaz mintzatu behar gara argiro. Emakundek kezka-iturri du emakume batzuek jasaten duten askotariko bereizkeria, eta horregatik, arreta berezia jartzen dio alderdi horri. Horren erakusgarri da bereizkeria bikoitz horri erantzuteko premia helburu estrategikotzat jaso izana EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Planean.

Generoaren eta desgaitasunaren pertzepzioa, eraikuntza soziala denez gero, aldatu egin daiteke berdintasunaren mesederako. Hor antzematen da egungo egoera eraldatzen hasteko eta emakumeek gizartean berdintasunez parte hartzea ahalbidetzeko giltzarrietako bat. Horretarako, beharrezkoa da generoa eta desgaitasuna zeharkakotasunez jasotzea politika instituzionaletan.

Nahi genuke manifestu hori tresna baliotsua izatea, desgaitasunei buruzko politiketan generoa zeharkakotasunez ezartzen laguntzeko.

María Silvestre Cabrera
EMAKUNDE-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria

HITZAURREA

EDF-KO PRESIDENTEAREN HITZAURREA

Atsegin handiz aurkezten dizuet *Desgaitasuna duten Europar Batasuneko Emakumeen eta Nesken Eskubideen II. Manifestua: Ekintzaile eta arduradun politikoentzako lanabesa.* Desgaitasunaren Europako Foroaren (EDF) eginkizun garrantzitsuenetako bat desgaitasuna duten emakumeen eta nesken eskubide-berdintasuna sustatzea da, eta erabat ziur nago Manifestu hau funtsezko lanabes bilakatuko dela eskubide horiek eguneroko bizitzan errespetatu egingo direla bermatzeko.

Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioa indarrean sartu zenetik, ezinbestekoa zen bigarren Manifestu hau onartzea. Konbentzio hura, Europar Batasunak erakunde modura giza eskubideei buruz onartu eta berretsitako lehendabizikoa zen. Beste hainbeste egin zuten estatu kideek.

Desgaitasunaren Europako Foroarentzat (EDF) ohore handia da Emakumeen Europako Lobbyak (EWL) manifestu hau ofizialki babestu izana, gure erakundea eskubide osoko kide baita lobby horretan. Manifestua babestea funtsezkoa da desgaitasuna duten emakumeek eta neskek oraindik ere bizitzaren alor askotan bizi duten askotariko diskriminazioa errotik desagerrarazteko.

Zorionak eman nahiko nizkieke EDFko Emakumeen Batzordeari eta, bereziki, bertako presidentea den Ana Peláez Narváez andreari, lan ikaragarria egin dutelako Manifestu sakon hau prestatzen. Halaber, eskerrak eman nahi dizkiot Desgaitasuna duten Pertsonen Ordezkarien Espainiako Batzordeari (CERMI), bai Manifestu hau zenbait hizkuntzatara itzultzeagatik, bai argitaratzeagatik -azken eginkizun horretan, Asturiasko Printzerriko Prokuradoretza Nagusiaren laguntzarekin-.

Azkenik, Manifestu hau erabiltzera bultzatu nahi ditut arduradun politikoak eta desgaitasunaren inguruko elkarteetan murgilduta dabiltzan pertsona guztiak. Baita halakoetan parte hartzen ez dutenak ere. Generoa eta desgaitasuna politika guztietan integratuz gero, eta denok elkar hartuta, diskriminaziorik gabeko gizartea eraiki ahal izango dugu; hots, pertsona guztien giza eskubideen eta eskubide zibilen errespetuan oinarritutako gizartea.

Yannis Vardakastanis
EDFko presidentea
2011ko uztaila

ATARIKOA

ATARIKOA

1997ko otsailaren 22an, Desgaitasuna duten Emakumeen Manifestua onartu zuen Desgaitasunaren Europako Foroak, helburu garbi batekin: sektore hori gizarte zibilean presente egotea eta bertan parte hartzea, eta haien funtsezko eskariak eta premiak kontuan hartzeko oinarriak finkatzea, Europar Batasunean eta Estatu kideetan berdintasuna eta diskriminaziorik eza sustatzeko.

Desgaitasunaren Europako Foroak honako hauek hartu zituen Manifestua prestatzeko abiapuntu gisa: Nazio Batuen Erakundeko adituek desgaitasuna duten emakumeei buruz 1990ean Vienan egindako mintegiko gomendioak, eta Desgaitasuna duten pertsonen aukera-berdintasuna eta diskriminaziorik eza lortzeko arau uniformeak, NBEk 1993an onarturikoak. Europako Batzordeak, xede horretan, laguntza zuzena jaso zuen Helios II Programaren bidez, eta baliagarria izan zen Desgaitasunaren Europako Foroan Emakumeen Batzordea behin betiko eratzeko.

Ordutik hamalau urte igaro direnean, hauxe aurkezten dugu: *Desgaitasuna duten Europar Batasuneko Emakumeen eta Nesken Eskubideen II. Manifestua: Ekintzaile eta arduradun politikoentzako lanabesa.* Desgaitasunaren Europako Foroak onartu zuen, 2011ko maiatzaren 28an eta 29an Budapesten eginiko Urteko Batzar Orokorrean, eta Emakumeen Europako Lobbyaren babesa jaso zuen aste batzuen buruan.

Hala ere, Europar Batasunak zenbait arau onartu zituen gerora, eta nabarmen erakusten zuten behar-beharrezkoa zela aurreneko Manifestu hura berrikustea eta eguneratzea. Hona arau horietako batzuk: Desgaitasuna duten Pertsonen eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioa, 2010-2020 aldirako Desgaitasunari buruzko Europako Estrategia eta 2011-2020 aldirako Genero Berdintasunaren Aldeko Europar Batasunaren Ituna. Baina, batez ere, eta beste ezer baino lehen, hauxe izan da bigarren Manifestu hau prestatzera bultzatu gaituen arrazoi nagusia: desgaitasunari buruzko politiketan genero-ikuspegia txertatzeko eta generoari buruzko politiketan desgaitasun-ikuspegia txertatzeko lanabes bat garatzeko premia.

Dokumentu hau prestatzeko, balio handiko ekarpenak jaso ditugu, zuzen-zuzenean, honako hauen eskutik: EDFko Emakumeen Batzordea, desgaitasunen bat duten emakume asko, desgaitasuna duten pertsonen ama asko, eta EDFren urteko batzarrean parte hartu zuten elkarte anitz.

Hemezortzi gairen inguruan egituratuta dago II. Manifestua, Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Konbentzioko artikulu guztiak jasotzeko asmoz, eta oinarrizko bost alderdi hauei eman nahi die erantzuna: desgaitasuna duten emakumeek eta neskek dagokion eremuan duten egoeraren berri ematea; laguntza zuzenari buruz egiten dituzten eskaerak jasotzea; Batasunean hobekuntzak proposatzea; herritar horien egoera zehatza zein den jakiteko

beharrezko diren azterlanak eta ikerketak proposatzea; eta gai honetan garrantzi handien duten lege-alderdiei buruzko azaleko analisia egitea.

Nahiz eta hamaseigarren atalean generoaren eta desgaitasunaren alorretan berebiziko garrantzia duten faktoreen elkarreragina aztertu, eta horietako batzuk kapitulu zehatz batzuetan berariaz xedatuta egon, badira dokumentuan behin eta berriro aipatzen diren alderdi batzuk; besteak beste, neskak, adineko emakumeak, irisgarritasuna eta emakumeen aurkako indarkeria, ikuspegi ugaritatik landuta.

Gainera, atalez atal xedatutako gai eta alderdi guztiak ordena bati jarraiki sistematizatzearren, askotan Konbentzioko artikuluen arabera edota gaiaren mailakatze naturalaren arabera antolatu ditugu atalak. Horrenbestez, irisgarritasunaren gaiaren kasuan, honako arlo hauek hartu ditugu kontuan generoari buruzko alderdiak lantzean: eraikitako ingurunearen eta hiriaren diseinua, garraioa, informazioaren eta komunikazioaren irisgarritasuna, bai eta ondasun eta zerbitzuena ere. Halaber, emakumeen aurkako indarkeria aztertzean, kontuan hartu ditugu prebentzioa, biktimentzako laguntza, sendabiderako modua, premiazkoak diren neurri legalak, eta garatu beharko liratekeen azterlan eta ikerketak. Osasunaren gaia lantzeko, berriz, oinarrizko osasun-laguntzari buruz, sexu- eta ugalketa-osasunari buruz, emakumearen aurkako indarkeria-egoeretarako osasun-laguntzari buruz eta osasun mentalari buruz egin dugu gogoeta. Hona hemen hiru adibide, adierazitakoaren erakusle.

Uneotan, ingelesez, frantsesez eta gaztelaniaz -azken hori da jatorrizko bertsioa- eskura daiteke II. Manifestua, baina beste hizkuntza batzuetara ere itzuliko dugu, helarazi nahi dugun mezua Europar Batasuneko txoko guztietara irits dadin. Horiek guztiak Desgaitasunaren Europako Foroaren webgunean egongo dira eskuragarri. Desgaitasuna duten pertsonen eta emakumeen elkarteei biziki gomendatzen dizuegu horiek kontsultatzea, baina, bereziki, politikariei, arloarekin zerikusia duten sektore profesionalei eta, oro har, gizarteari.



SARRERA

SARRERA

Gizarteak aurrera egin duen arren, emakumeen aurkako diskriminazioa gertatzen da oraindik ere; askoz ere modu sotilagoan, beharbada. Nahiz eta emakumeen mugimenduek berebiziko garrantzia izan duten aldaketak sustatzeko orduan, eta izugarrizko ahalegina egin duten emakumeak ahalduntzeko eta berdintasunaren alde borroka egin dezaten prestatzeko, ez da halakorik gertatu desgaitasuna duten emakumeen kasuan: batetik, desgaitasunik gabeko emakumeen mugimenduak ez dira, oraingoz, haien premiez jabetu; bestetik, desgaitasunaren inguruko elkarteen mugimenduak ez die behar besteko arreta eskaini, nahiz eta aurrerapenak izan diren -itxurazkoak gehiago, benetakoak baino-.

Horren guztiaren ondorioz, desgaitasuna duten emakumeak giza eskubideen aldeko mugimendu guztietatik kanpo daude oraindik ere, eta gizartean atzeratuta. Izan ere, desgaitasuna duten emakumeen egoera kaskarragoa da desgaitasunik ez duten emakumeena baino, eta egoera berean dauden gizonezkoena baino are okerragoa. Zer esanik ez landa-ingurunean bizi direnen kasuan. Landa-ingurunean, oraindik ere araubide matriarkala eta sistema ekonomiko primarioa dira nagusi; hortaz, herritar hauek zerbitzu eta aukera gutxiago dituzte hirigunekoek baino. Hala ere, ez politika publikoek, ez eta politika horiek bultzatzen dituzten azterlanek ere, ez diote hain nabarmena den diskriminazioari konponbiderik ematen; besteak beste, erabiltzen dituzten adierazleek ez dituztelako genero-ikuspegia eta desgaitasun-ikuspegia batera biltzen. Horrela, ezinezkoa da familian bizi duten benetako egoera zein den ezagutzea, edo hezkuntzara edo osasun-zerbitzuetara jotzeko zein aukerak dauzkaten jakitea -arlo kritiko gutxi batzuk baino ez aipatzearren-. Beste hainbeste gertatuko litzateke soil-soilik genero-ikuspegitik aztertuko balira emakume horiek lan-merkatuan sartzeko dauzkaten aukera bakanak, edo indarrean dagoen legediari buruz daukaten ezagutza mugatua, edo desgaitasunak dituzten pertsonentzat edo emakume ororentzat dauden zerbitzuei buruz. Legegintzan eta politikan azkenaldian sortzen ari diren ekimenek ez dituzte genero- eta desgaitasun-ikuspegiak bateratzen. Ondorioz, ezkutuan geratzen ari dira herritar hauen premiak, eta egiturazko desberdintasun-egoeran jarraitzen dute.

Hortaz, lehenbailehen ahaldundu behar dira desgaitasuna duten emakumeak. Lehentasunezko beharra da hori. Izan ere, ez gizartea, ez botere publikoak, ez emakumeen mugimenduak, ez eta desgaitasuna duten pertsonen mugimenduak ere, ez gara ohartu benetan dauzkaten beharrez eta interesez.

Europan biztanleria aktiboari buruz 2002an egindako inkestaren (LFS) modulu bereziak (1) -norberaren pertzepzioan oinarrituta- adierazitakoaren arabera, Europako emakume guztien

(1) Ad hoc module of the EU Labour Force Survey (LFS) on people with disabilities and long term health problems, 2002.

% 16 inguru dira desgaitasuna dutenak. Datu hori lortzeko, kontuan izan da gaur egun ia 250 milioi emakume daudela; horrek esan nahi du desgaitasuna duten 40 milioi emakume eta neska daudela, gutxi gorabehera, Europar Batasunean.

Desgaitasuna duten emakumeek gizartean bete-betean eta berdintasunez parte hartzeko dauzkaten oztopoak gainditzearren, Desgaitasunaren Europako Foroak eta bertako kide diren erakundeok aldatu egin nahi dugu errealitatea. Horretarako, konpromiso irmo eta egonkorra lortu nahi dugu generoaren arloan. Bai desgaitasunean eta sexuan oinarrituta diskriminaziorik egin ez dadila aldarrikatzeko, bai aldaketa politikoa sustatzeko benetako premia dagoelako: emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren bidean egin ditugun aurrerapen txikiak guztion berdintasunaren aldeko politika sendo bihurtu behar ditugu, egiturazko desberdintasuna oinarri duen askotariko diskriminazioaren aurka borroka egin ahal izateko.

Gaur egungo krisi finantzario eta ekonomikoa askotariko diskriminazioaren adibide argia dugu. Ikara eragin digu desgaitasunaren arloan izan ditzakeen ondorioengatik, baina ez gara konturatu ondorio horietan generoak duen garrantziaz. Zoritxarrez, krisiari aurre egiteko aurkeztu diren lehendabiziko ekimenek eta suspertze-planek ez dute genero-eragina aintzat hartzen jakin, eta are gutxiago desgaitasuna eta generoa batera hartuta. Hala ere, besteak beste Emakumeen Europako Lobbyak adierazi duenez, gauza jakina da krisiak askotariko diskriminazio-arrisku handienean dauden emakumeei eragiten diela gehien, bai zuzenean (txikitu egiten dira haien diru-sarrerak, lana aurkitzeko aukerak eta gizarte-prestazioak, eta areagotu egiten dira haien egiturazko desberdintasunak), bai eta zeharka ere (murriztu egiten direnez gizarte-prestazioak, familien esku gelditzen da zaintzaren karga -emakumeen esku batez ere, haiek baitira, oraindik ere, zaintza-lanaz gehien arduratzen direnak-).

Horregatik, desgaitasunaren inguruko elkarte-sarea osatzen dugunok berdintasunaren alde borrokatzeko konpromisoa hartu dugun arren -hori da gure erakundeen oinarrizko printzipioa-, oraingoz lan asko egin behar dugu genero-ikuspegia gure lan-politiketan txerta dadin lortzeko; batez ere, baliabideen (giza baliabideak eta finantza-baliabideak), gizarte-zerbitzuen eta komunikazioaren kudeaketari dagokionez, eta, batez ere, erabakiak hartzeari dagokionez. Badira jardunbide egokien adibide bakar batzuk, baina, genero-ikuspegia abian jarri den kasuetan, gehien-gehienetan, emakumea egitura zehatz batzuetan edo ordezkaritza-organo batzuetan txertatzera mugatu da; ez da, beraz, politikak eta erakundeak eraldatzeko prozesua abiarazi, guzti-guztion berdintasuna lortze aldera. Gainera, genero-ikuspegiaren printzipioa aplikatzea, neurri handi batean, pertsonek banako gisa duten borondate politikoaren mende dago oraindik ere; beraz, pertsona horiek alde egiten dutenean, lortutako aurrerapenak ere galdu egiten dira.

Horrenbestez, desgaitasunaren alorrean benetako aldaketak lortuko badira -hau da, gizarte berdinagoa lortzeko aukera emango duten aldaketak-, ezinbestekoa da lehendabizi berdintasunaren aldeko konpromisoa argi eta garbi eta inolako mugarik gabe hartzea, berariazko politiken bidez, mekanismo instituzionalen bidez, programen eta neurrien bidez.

Oro har, esan daiteke gizarte-ekintzako hirugarren sektorea osatzen dugun erakundeok hauxe izan dugula bereizgarri: herritarren eskubide sozialak aitortu eta gauzatzearen alde jardun gara, gizarteratzea eta laneratzea alor guztietan lortzeko, eta gizarte-talde jakin batzuk -desgaitasuna duten pertsonena, esaterako- ez daitezen ongizate-maila egokia lortzeko helburutik kanpo geratu. Guri dagokigunez, desgaitasunaren eremura bideratu ditugu konpromiso horiek. Gizarte-zerbitzuetan zuzenean jardunez, eta politikan parte hartzeko dugun ahalmenaren bidez, ordezkatzen ditugun pertsonentzat diskriminazio-eza eta aukera-berdintasuna lortzen saiatu gara.

Nahiz eta desgaitasuna duten pertsonen eta horien familien alde ahaleginak egin ditugun gizarte-justiziaren eta berdintasunaren alorrean, ez diogu beti sexuen artean dagoen desorekari begiratu; ez gure egituretan, ez eta gure politikak eta programak garatzean ere. Indarrean dauden arauak bete daitezela eskatzeko eskubide osoa daukagu, eta sexuen arteko aukera- eta tratu-berdintasunaren alde egin behar dugu. Gizarte-justizia lortzeko konpromiso horretan, guk ere badugu zerikusirik.

Oro har, esan dezakegu desgaitasunaren arloko erakundeek osatzen duten jarduera profesionalaren sektorea feminizatuta dagoela -ordainsaria jasotzen duten langileen % 60-70 inguru emakumeak dira-, baina emakume horien lan-baldintzak gizonezko lankideena baino kaskarragoak direla, ez baitzaie familia-bizitza eta lana uztartzeko aukera egokirik eskaintzen, ez delako kontuan hartzen generoak lan-baldintzetan nola eragiten duen (lanaldi partzialak, iraupen jakineko kontratuak…). Hala eta guztiz ere, gure erakundeetan, emakumeak dira boluntario-lanetan eta zuzenean esku-hartzen ari diren gehien-gehienak. Azken batean, guk ere eginkizunak generoaren arabera banatzeko joerari jarraitzen diogu, emakumeek gehienbat esku-hartzeko eremuetan egiten baitute lan, eta gizonezkoek, berriz, erantzukizun-postuetan. Ezbairik gabe, emakume gehiagok egon beharko lukete azken horietan.

Hala ere, ez genuke pentsatu beharko gure elkartean emakume ugari ari direlako lanean tratu- eta aukera-berdintasuna bultzatzen ari garenik; alderantziz, emakume horiek ikusezin bihurtzen ari gara, hala botere-harremanetan, nola haien giza eskubideen eta oinarrizko askatasunen errespetuari dagokionez, erreferentzia-taldeekin alderatuta.

Ez ditzagun ahaztu, halaber, berdintasuna lortzeko xedearen inguruan dauden jarrera negatibo edo eszeptikoak. Gure erakundeen eguneroko jardunean generoaren eraginak gehiegi baloratzearen ondorio dira, eta baztertu egiten dituzte berdintasuna sustatzera bideratutako estrategia jakin batzuk, politikoki zuzenak diren diskurtsoetan gogaikarriak, nekagarriak eta errepikakorrak direla irizten dutelako. Jarrera horien ondorioz, diskriminazio nabarmena jasan dezakete gure elkarte-mugimenduetan parte hartzen duten pertsonen erdiek baino gehiagok. Argi dago genero-harremanak ez direla estetikoak; beraz, birformulatu egin beharko ditugu planteamendu teoriko zenbait, eta jarduteko beste bideren bat aurkitu beharko dugu.

Berdintasunaren alde egindako ibilbide laburrean atzera egiteko arriskua dagoenez, beharbeharrezkoa da botere publikoek zein hirugarren sektoreko erakundeok berdintasunaren aldeko politikak, planak eta neurriak abian jartzea, sektoreetan generoa oinarri duen diskriminazioa murrizteko. Horretarako, ildo bikoitzeko ikuspegia izan behar da: batetik, erakundearen beraren helburua, ikuspegia eta balioak -erakundea politikan eta eskubideen defentsan aritu, edo zerbitzuak eta laguntza kudeatzen eta ematen aritu-; eta, bestetik, eskuragarri dauden baliabideen kudeaketa-prozesuak (giza baliabideak, finantzarioak, materialak, komunikaziokoak edo estrategikoak).

Lehen ikuspegiari dagokionez, erakundearen jardueretan, zerbitzuetan eta programetan genero-ikuspegia egokia izango dela bermatu behar da, erabiltzaileen (gizon zein emakume) behar praktiko eta estrategikoei sistematikoki erantzunez.

Horretarako, lehenik eta behin, ezinbestekoa da guztiontzako programetan eta zerbitzuetan erregistro-sistemak ezartzea, datuak sexuaren arabera bereizita daudela, eta generoarekin zerikusia duten beste adierazle batzuk ere badituztela. Hala, jakin ahal izango dugu programa eta zerbitzu horiek onuradunen artean nola banatzen diren, desorekak zerk eragiten dituen, eta zergatik jarraitzen duten eragiten. Ondoren, behar bezalako ebaluazioak egin, eta neurriak aplikatuko ditugu, desorekak desagerrarazteko.

Bigarrenik, desgaitasuna duten onuradunek generoa dela-eta laguntza berezia behar duten kasuetan jarduteko eremuak aztertu behar ditu erakundeak. Berariazko programak diseinatu behar ditu horretarako, sexu bakoitzaren ezaugarriak aintzat hartuta. Desgaitasuna duten pertsonei buruz egin diren azterlan apurrek erakusten dutenaren arabera, gizonezkoen eta emakumezkoen kasuan bereizita landu beharreko gaiak honako hauek dira, besteak beste: osasuna, indarkeria, abusua, sexu-eskubideak eta ugalketa-eskubideak.

Erakundean eginkizun horiek beteko dituzten pertsonek prestakuntza egokia jaso beharko lukete generoaren alorrean; zehazki, ekintza, zerbitzu nahiz laguntzetan genero-ikuspegia txertatuko dutela bermatzeko. Ez dezagula pentsa desgaitasunaren arloko erakundeetako teknikari gehienak emakumeak izateagatik, profesional horiek guztiek genero-ikuspegia aintzat hartuta egingo dutela lan.

Bestalde, kudeaketa-prozesuen ikuspegiari dagokionez, ezinbestekoa da erakundeak berdintasunaren alde duen konpromisoa protokolizatzea eta gizarteari horren berri ematea, genero-ikuspegia erakundean sistematizatuta eta kudeaketan nahiz kulturan integratuta dagoela ziurtatuz.

Hortaz, giza baliabideen kudeaketaren alorrean, desgaitasunaren arloko erakundeek langileen artean berdintasuna eta diskriminazio-eza ziurtatzeko jarduerak bultzatu beharko lituzkete, besteak beste honelako neurriak ezarrita: erabakiak hartzeko prozesuetan emakumeen parte-hartzea sustatzea; profesionalen eta administrarien artean, gizonezko gehiago izatea; ema-

kumeentzako prestakuntza-programak eta laguntza teknikoa bultzatzea, zuzendaritza-postuetarako prestatzeko zein gerora trebatzeko; norberaren bizitza, familia eta lana uztartzeko politikak, planak eta neurriak garatzea; eta horietan gizonezkoak ere inplikatzea.

Baliabide ekonomiko-finantzarioen kudeaketari dagokionez, ahalegina egin behar da desgaitasunaren arloko erakundeetako aurrekontuetan ere genero-ikuspegia txertatzeko. Kontzeptu horrek esan nahi du genero-ikuspegia erakundearen programa, proiektu, jarduera eta estrategien etapa guztietan txertatu behar dela, eta, horretarako, gizonen eta emakumeen interesak, premiak eta lehentasunak, nor bere gizarte-taldean, behar bezala bateratu behar direla. Azterketa horretarako, ikuspegi inklusiboaren arabera berrantolatu beharko dira erakundearen aurrekontuetako lehentasunak, erakundeak dituen baliabide ekonomikoak ekitatiboki banatuko direla bermatzeko.

Garrantzitsua da, halaber, erakundearen informazio-produktuak eta komunikazio-estrategia kontuan hartzea, funtsezko bitartekoak izan baitaitezke generoari buruzko gaietan benetan laguntzeko. Hortaz, adi ibili behar da genero-eragina informazioa prestatzean, argitaratzean eta helaraztean kontuan hartzeko; hala komunikazio-produktuetan (buletinak, informazio-oharrak, prentsa-artikuluak, liburuxkak eta kartelak, irrati-programak, dibulgaziorako materiala…), nola liderren banakako komunikazio-prozesuetan (hitzaldiak, solasaldiak, konferentziak…). Halaber, emakumeei propio zuzendutako informazio-produktuak sortzea komeni da, haiei zuzenean eragiten dieten gaiei buruzkoak; esaterako, erraz eskuratuko dituzten material dibulgatiboak, edota erakundearen Internet korporatiboan bereziki emakumeei zuzendutako webgune bat.

Ondoren adieraziko ditugun lanabesak ez dira desgaitasunaren arloko erakundeei laguntzeko bakarrik sortuak -edo emakumeen erakundeentzat, oro har-; aitzitik, desgaitasuna duten Europar Batasuneko emakumeen eta nesken gizarte-bizitza eta bizi-kalitatea hobetzeko jarrera zabalago baten zati dira. Eta isla izan behar du Europako politikan eta legegintzan, desberdintasuna bizitzaren arlo guztietan behingoz desagerrarazteko.

Gai honi buruz dauden lege-tresnak eta desgaitasunaren alorrean generoak duen eraginari buruz dauzkagun ezagutzak kontuan hartuta, proposamen ireki eta malgua aurkezten dizuegu jarraian, lagungarria izan daitekeena desgaitasunaren eta berdintasunaren arloko politikak genero-ikuspegia aintzat hartuta osatzeko. Jarduerak zehazteko orduan, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Nazio Batuen nazioarteko konbentzioan zehaztutako giza eskubideak eta oinarrizko askatasunak hartuko ditugu erreferentzia gisa, horietan oinarritu behar baitute Europar Batasunaren eta Estatu kideen politikek. Eta, hemen ere, bat egin nahi dugu ondorengo printzipioarekin: DEUS EZ DESGAITASUNA DUTEN EMAKUMEENTZAT, DESGAITASUNA DUTEN EMAKUMEAK AINTZAT HARTU GABE.

Ana Peláez Narváez
Desgaitasunaren Europako Foroko
Emakumeen Batzordeko presidentea

1. BERDINTASUNA ETA DISKRIMINAZIO-EZA

1. BERDINTASUNA ETA DISKRIMINAZIO-EZA

1.1. Desgaitasuna duten emakumeak eta neskak berdinak dira legearen aurrean, eta babesmaila eta onura berdinak izateko eskubidea dute, inolako diskriminaziorik gabe. Debekatuta dago desgaitasunean eta sexuan oinarritutako diskriminazio oro, kontuan izanik bi faktore horiek batera gertatzeak eragin esponentziala duela desberdintasunean; hortaz, ezinbestekoa da bizitzaren arlo guztietan, diskriminazioaren aurrean, eraginkortasunez bermatzea.

1.2. Desgaitasuna duten emakumeei eta neskei dagozkien eskubideei buruzko informazioa eman behar zaie, beren erabakiak har ditzaten. Horrez gain, eskubideak aplikatzeko eta eskatzeko dauden mekanismoen eta bitartekoen berri eman behar zaie, benetan erabili ahal izango dituztela bermatzeko. Babes- eta laguntza-neurri bereziak hartu beharko dira horretarako. Kasu guztietan, erraz ulertzeko moduan emango zaie informazioa, haiek aukeratutako komunikazio-moduak, -bitartekoak eta -formatuak kontuan hartuta. Halaber, beharrezkoa izango da jarduera horietan guztietan desgaitasuna duten emakumeak integratzea, haien egoeran daudenentzat emakume autonomo eta independentearen eredu izan daitezen.

1.3. Neurriak hartu behar dira, desgaitasuna duten emakumeen eta nesken eskubideei buruzko kontzientzia handiagoa izan dezaten gizartean eta familietan. Prozesu honetan parte hartuko duten profesionalek prestakuntza egokia jaso behar dute genero-ikuspegiari dagokionez, desgaitasuna duten pertsonen giza eskubideen arloan.

1.4. Desgaitasuna duten pertsonak eta haien familiak ordezkatzen dituzten erakundeek gizonaren eta emakumearen arteko berdintasunaren printzipioa txertatu behar dute beren erakunde-kulturan, beren erregelamenduetan eta lan-alorreko programetan. Horrez gain, printzipio horrek desgaitasuna duten emakumeak maila guztietan hartuko dituela bermatu behar dute, baita erabakiak hartzeko parte hartzean ere. Halaber, emakume-elkarteek ziurtatu behar dute erabat onartzen dituztela desgaitasuna duten emakumeak beren elkartean, parte hartzeko bidea dutela, eta behar bezalako laguntza dutela mota askotariko diskriminazioaren aurrean.

1.5. Desgaitasunaren edo generoaren arloko lege-xedapen, politika eta ekimen guztiek kontuan izan behar dute desgaitasuna duten emakumeen egoera berezia. *Desgaitasunari buruzko Europako Estrategia 2010-2020: oztoporik gabeko Europarako konpromiso berritua eta Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako Europar Batasunaren Estrategia 2010-2015* aplikatzean eta garatzean, kontuan hartu behar dira desgaitasuna duten emakumeak eta neskak.

1.6. Europar Batasunak eta Estatu kideek berrikusi, aldatu edo indargabetu egin behar dute desgaitasuna duten emakumeak eta neskak diskriminatzen dituen lege, erregelamen-

du edo ohitura oro. Hala egin beharko da bai desgaitasunaren alorreko berariazko araudiaren kasuan, bai generoari edo berdintasunari buruzkoetan. Zuzendu egin beharko dira desgaitasuna duten emakumeei eta neskei erreferentzia egiten dien termino desegoki guztiak.

1.7. Nazioarteko araudiak xedatutakoari jarraiki, nazioetako, Europako eta eskualdeetako organo legegileek desgaitasuna duten emakumeen eta nesken eskubideak babesteko legeak onartu behar dituzte. Kasuan kasuko gobernu-organoek lege horien jarraipena egingo dute, eraginkortasunez aplikatzen direla bermatzeko.

1.8. Diskriminazio-eza eta aukera-berdintasuna bermatuko dituzten legeak eta politikak egiteko zein aplikatzeko orduan, lankidetza estuan aritu beharko da desgaitasuna duten emakume eta neskekin, haien ordezkari diren erakundeen bidez. Erakundeek, halaber, integratu egin beharko dituzte administrazio publikoekin aritzean.

1.9. Desgaitasuna duten emakumeen eta nesken diskriminazioari buruzko azterlanak egin beharko dira, aintzat hartuta haien salaketak eta Europar Batasuneko zein Estatu kideetako epai judizialen edukia. Diskriminazio-ezari eta aukera-berdintasunari buruzko ikerketa eta txosten guztietan, kontuan hartu beharko dira sexuarekin eta desgaitasunarekin lotutako adierazleak.

1.10. Babestu eta finantzatu egin behar dira desgaitasuna duten emakumeen eta nesken gizarte-bazterketarekin lotutako adierazleen arloan Europan nahiz Estatu kideetan eginiko ikerketak; besteak beste, adierazle hauei buruzkoak: gizartean eta ekonomian dituzten desabantailak, bakartze soziala, landa-eremuaren faktorea, diskriminatzeko modu anitzak, emakumearen aurkako indarkeria, behartuta antzutzea eta abortatzea, komunitateko zerbitzuetara jotzeko ezintasuna, etxebizitzaren kalitate eskasa, instituzionalizazioa, osasun-laguntza desegokia, nahiz gizartean laguntzeko eta aktiboki parte hartzeko aukerarik ez izatea.

1.11. Genero Berdintasunerako Europako Erakundeak orientazioa eskaini behar du desgaitasuna duten emakumeek eta neskek Europar Batasunean eta Estatu kideetan bizi duten berariazko egoerari buruz; aktiboki parte hartu behar du haien eskubide-berdintasunaren defentsan, eta haiekiko diskriminazioaren aurka borrokatu.

2. KONTZIENTZIAZIOA, KOMUNIKABIDEAK ETA IRUDI SOZIALA

2. KONTZIENTZIAZIOA, KOMUNIKABIDEAK ETA IRUDI SOZIALA

2.1. Historiak, jarrerek eta aurreiritziek, bai eta familiaren inguruneak berak ere, negatiboki estereotipatu dituzte desgaitasuna duten emakumeak eta neskak, eta, ondorioz, are bakartuago eta baztertuago utzi ditu gizarteak. Komunikabideek ia ez diete kasurik ere egiten desgaitasuna duten emakumeei; eta, aipatzen dituztenean, ikuspegi mediko asexuatutik egiten dute, haien gaitasunak eta ekarpenak aintzat hartu gabe.

2.2. Desgaitasuna duten emakumeek eta neskek ageriago egon behar dute gizartearen maila guztietan. Desgaitasunaren eta feminismoaren arloko elkarte-sareak adibide positiboak eskaini behar dizkie desgaitasuna duten emakume eta neskei, eta haien familiekin ere egin behar dute lan, desgaitasuna duten emakumeen eta nesken egoerari buruz errotuta dauden rol eta ohitura okerrak desagerrarazteko. Halaber, desgaitasuna duten emakumeak eta neskak informazioaren eta komunikazioaren eremuan barneratuago egon daitezen bultzatu behar da; ez bakarrik haien premien berri emateko, baizik eta gizartearen egunerokotasunean kide aktiboak direlako.

2.3. Informazioa trukatzeari eta hedatzeari begira, oso aurrerapen garrantzitsua izango litzateke desgaitasuna duten emakumeen tokiko, nazioko, Europako eta nazioarteko sareak sortzea eta garatzea. Izan ere, baliagarriak izango lirateke gizartea gehiago kontzientziatzeko, eta desgaitasuna duten emakumeak motibatzeko eta ahalduntzeko, gizarte zibil antolatuko mugimenduetan aktiboki parte har dezaten.

2.4. Hezkuntza-sistemaren maila guztietan sustatu behar da desgaitasuna duten emakumeen eta nesken eskubideak errespetatzearen aldeko jarrera, txikitatik hasita. Lehen, bigarren eta hirugarren hezkuntzako ikasketa-planetan, halako gaiak landuko dituztela bermatu beharra dago: emakumearen eta gizonaren arteko berdintasuna, desgaitasuna, aniztasuna, sexuen estereotipatu gabeko rolak, elkarrenganako errespetua, liskarrak indarkeriarik gabe konpontzea, ohorea eta pertsona ororen autodeterminazioa. Eduki horiek ikasleen ahalmenen bilakaeraren arabera egokitu beharko dira.

2.5. Desgaitasuna duten emakumeen eta nesken oinarrizko eskubideei eta askatasunei buruzko kontzientziazio-kanpaina eraginkorrak jarri behar dira abian, eta horiek egiten jarrai dadin bultzatu, gizartea oro har eta sektore jakin batzuk kontzientziatzeko (lanaren arloa, sindikatuak, enpresak, alor judiziala eta osasuna, eta abar), helburu hauek lortze aldera: gizartean haiei buruzko pertzepzio hobea izatea, eskubide eta askatasun horiek erabili ahal izatea, eta gizartean oraindik ere errotuta dauden estereotipoak, aurreiritziak eta jarrera desegokiak desagerraraztea. Besteak beste, sexua eta desgaitasuna dituztenak oinarri.

2.6. Komunikabideek zeregin garrantzitsua dute desgaitasuna duten emakumeei buruzko informazioa hedatzen, eta lagundu egin behar dute herritarrek haiekiko duten jarreran aldaketa positiboa gerta dadin, bat etorrita Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioko printzipioekin eta balioekin. Komunikabideetako profesionalen artean, desgaitasunari eta emakumeei buruzko gaiak lantzen dituztenean hizkuntza positiboa erabil dezaten bultzatu behar da.

2.7. Telebista-kateak, irratiak eta prentsa idatzia desgaitasuna duten emakumeen eta nesken premiak ezagutarazteko programak egitera bultzatu behar dira, haien ordezkari diren elkarteekin lankidetzan. Ahalegin berezia egin behar da herritarrak emakumezko horien aniztasunari buruz kontzientziatzeko, desgaitasunak dituzten eta ezkutuan dauden emakumeei arreta berezia eskainita.

2.8. Komunikabideek kontsulta egin behar diete desgaitasuna duten emakumeei, eta haiek ere parte har dezaten bultzatu -ahal dela, elkarteek berek izendatutakoak-; horrez gain, saioak aurkezten eta gainbegiratzen ere parte hartu behar dute emakume horiek. Oso ohikoa denez telebista- eta irrati-produkzioak eskualdeen zein nazioen artean trukatzea, saio horiek ahalik eta gehien hedatu behar dira.

2.9. Publizitatea oso tresna baliagarria da pertsonen identitate soziokulturala eraikitzeko, baina ez du desgaitasuna duen emakumearen irudia kontuan hartu. Funtsezkoa da desgaitasuna duten emakumeek eta neskek gizartean parte-hartze handiagoa eta normalizatua dutelako irudia hedatzea, taburik eta motibazio irrazionalik gabea. Prestakuntza egokia jaso behar da haiei buruzko informazioa emateko eta publizitatea egiteko, eta oinarrizko gakoak sortu behar dira.

2.10. Teknologia berriek eta informazio- eta komunikazio-sistema berriek (Internet, sare sozialak eta webguneak, eta abar) ezin dute desgaitasuna duten emakumeen eta nesken osotasuna urra dezakeen informaziorik jaso. Desgaitasuna duten emakumeen eta nesken ordezkari diren erakundeek zaindu egin behar dute hori bete egiten dela nazioetan zein Europan. Desgaitasunaren inguruko nazioetako batzordeen eta emakumeen nazioetako lobbyen laguntzarekin arituko dira eginkizun horretan, bai eta Desgaitasunaren Europako Foroaren eta Emakumeen Europako Lobbyaren laguntzarekin ere. Behar-beharrezkoa da haien artean jardunbide egokiak truka daitezen bultzatzea, tokiko erakundeak ere inplikatuta.

3. I RISGARRITASUNA

3. IRISGARRITASUNA

3.1. Ezinbestez bermatu behar da desgaitasuna duten emakumeek eta neskek autonomiaz bizitzeko eta bizitzaren alor guztietan parte hartzeko aukera izango dutela, gainerako pertsonek dituzten baldintza berberetan -bereziki, beren erreferentziazko herritarrek dituztenetan-. Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioko 9. artikuluak ezarritakoari jarraiki, neurri egokiak hartu behar dira ziurtatzeko desgaitasuna duten emakumeek eta neskek benetan aukera dutela ingurune fisikora iristeko, garraioa erabiltzeko, informazioa eskuratzeko eta komunikatzeko, informazioko eta komunikazioko teknologiak eta sistemak barne, bai eta herritar ororentzat prestatuta dauden edo erabilera publikokoak diren zerbitzuak eta instalazioak erabiltzeko ere, hiriguneetan zein landa-eremuetan egon.

3.2. Irisgarritasunaren alorreko neurrietan, plangintzetan, proiektuetan, programetan eta ikuskaritzetan genero-ikuspegia ondo txertatze aldera, ziurtatu behar da desgaitasuna duten emakumeek parte hartzen dutela kasuan kasuko erakundeetan -ahal dela, aholkulari edo aditu gisa-, ingurunearen, ondasunen eta zerbitzuen diseinuek desgaitasuna duten emakumeen premia eta eskari zehatzak kontuan hartzen dituztela bermatzeko.

ERAIKITAKO INGURUNERA ETA HIRI-INGURUNERA JOTZEKO ERRAZTASUNA

3.3. Espazio publikoen zein pribatuen hirigintza-politikak irisgarritasunari, autonomiari, soziabilitateari eta bizigarritasunari buruzko irizpideen arabera diseinatzean, garatzean eta gauzatzean, aintzat hartu behar da genero-ikuspegia ere. Kontuan izanik desgaitasuna duten emakumeek diru-sarrera txikiagoak dituztela, lan-esparruan parte-hartzea txikia dutela, beren kabuz bizitzeko zailtasunak dituztela, auto pribatua oso gutxik dutela, eta beren egoera berean dauden gizonezkoak baino urte gehiago bizi ohi direla, honako hauek bultzatu behar dira: auzo-hurbiltasuna, eraikinak eta etxebizitzak egokitzea, oinez mugitzeko aukera gehiago izatea, garraioa erabiliz lekualdatzeko premia murriztea, eta kalea topagune eta harreman sozialetarako gune gisa berreskuratzea.

3.4. Eraikitako ingurunea eta hiri-ingurunea planifikatzerakoan, kontuan hartu behar dira segurtasun zibilari buruzko irizpideak, herritarrei babesa eskaintzeko batetik bestera mugitzen direnean, eta indarkeriaren eta abusuaren aurrean arrisku handien duten herritarrek (esaterako, emakumezkoak, haurrak, adinekoak eta desgaitasuna dutenak) babestuta daudela senti dezaten.

3.5. Behar-beharrezkoa da arkitekturaren, diseinuaren eta ingeniaritzaren alorreko profesionalak -gaur egungoak eta etorkizunekoak- irisgarritasun unibertsalaren arloan prestatzeko neurri berriak bultzatzea, pertsona guztiak aintzat hartuta eta genero-ikuspegia txertatuta jardun dezaten arkitekturan eta eraikuntzan. Gai horri dagokionez, nazioarteko erreferentziazko programa bat sortu beharko litzateke.

GARRAIOBIDEETARA JOTZEKO ERRAZTASUNA

3.6. Garraioak desgaitasuna duten pertsona guztientzat egon behar du eskuragarri, beren kabuz mugi daitezen batetik bestera. Jakin, badakigu desgaitasuna duten emakumeek gehiago erabiltzen dutela garraio publikoa desgaitasuna duten gizonek baino, gizonezkoek baino aukera gutxiago dituztela auto pribatua erabiltzeko, eta beren eguneroko joan-etorriak konplexuagoak direla, beste pertsona batzuk zaintzeko eta etxeko lanez arduratzeko erantzukizuna izaten dutelako beren gain. Hortaz, funtsezkoa da garraioari buruzko politikak diseinatzerakoan, garatzerakoan eta ebaluatzerakoan kontuan izatea desgaitasunarekin eta generoarekin zerikusia duten alderdiek bat egiten dutela, helburua desgaitasuna duten emakumeen aukera-berdintasuna eta diskriminazio-eza bermatzea baita. Horretarako, garrantzitsua da desgaitasuna duten emakume adituak prozesuaren fase guztietan parte hartzera gonbidatzea, aholkulari gisa.

3.7. Garraiobideen irisgarritasunari dagokionez, eta kontuan izanik desgaitasuna duten emakumeek erosahalmen txikia dutela, desgaitasuna edo mugikortasun murriztua duten pertsonei garraiobideak erabiltzea bermatzeko neurriak arautzeko orduan, kontuan hartu behar da pertsona horiek lehentasuna izan behar dutela ahalik eta garraio-mota gehien erabiltzeko orduan (autoa, trena, hegazkina eta itsasontzia), eta garraiobide horiek merkeagoak izan beharko luketela, hala hiri-ingurunean, nola, bereziki, landa-eremuan. Desgaitasuna dutenek eta desgaitasuna dutenen gurasoek aukera izan behar dute batetik bestera joateko orduan garraioa doan edo prezio merkean izateko. Neurri hori bateragarria da joan-etorria egitean pertsona baten laguntza jasotzeko aukerarekin.

3.8. Desgaitasuna edo mugikortasun murriztua duten pertsonei garraiobideetan zerbitzua emateaz arduratzen direnek ahalegin berezia egin behar dute desgaitasuna duten emakumeak duintasunez trata daitezen bermatzeko. Behar-beharrezkoa da laguntza-zerbitzu hori eskaintzen duten langile espezializatuak emakumeenganako berariazko tratuan trebatzea, eta sexuen arteko errespetuzko oinarrizko arauak urratzen ez direla zaindu behar da. Emakumezko horiek seme-alaba adingabeekin bidaiatzen dutenean, langileek haurrentzako berariazko zerbitzuak jarri beharko dituzte haien esku, halakoak egonez gero (jolaserako lekuak, pixoihalak aldatzeko lekuak, bularra emateko aretoak…).

INFORMAZIORA ETA KOMUNIKAZIORA JOTZEKO ERRAZTASUNA

3.9. Desgaitasuna duten emakumeek eta neskek informazioaren gizartea osatzen duten alderdiak berdintasunez eskuragarri dauzkatela bermatu behar da. Informazioaren eta komunikazioaren alorreko teknologiak garatzean, kontuan hartu behar dira desgaitasuna duten emakumeen eta nesken alderdi ekonomikoak, prestakuntzaren beharra eta aukera-berdintasuna, edozein dela ere haien adina. Hala, gizarte-bazterketa edo pobrezia-egoera bizitzeko arriskua duten emakumeek eta neskek eskura izan behar dituzte aipaturikoak.

3.10. Komunikazioa laguntzeko lehentasunak ezartzean eta zerbitzua ematean, sexuan oinarrituta diskriminaziorik egingo ez dela ziurtatu behar da. Oro har emakumeei zuzentzen zaizkien zerbitzuak -emakumearen aurkako indarkeriaren ingurukoak eta haurrak artatzekoak barne- eskuragarri dauden hizkuntza, forma eta formatu guztietan eman behar dira, modu erraz eta seguruan. Zerbitzu horiek telefono bidez edo telelaguntza bidez ematen badira, horiek ere emakume gorrek eta gor-itsuek erabiltzeko moduan eskaini beharko dira.

3.11. Emakume gorrek doan izan behar dituzte zeinu-mintzaira interpretatzeko zerbitzuak eta ahozko komunikazioan laguntzeko zerbitzuak (begizta magnetikoa, frekuentzia-modulazioko ekipoak, azpitituluak edo ezpainak irakurtzekoak, eta abar), eta behar duten guztietan haietara jotzeko askatasuna izan behar dute (ekitaldi erlijiosoetan, kulturaletan, politikoetan eta komunitatekoetan), komunitatearen egunerokotasunean parte har dezaten eta modu aktiboagoan integra daitezen. Gorrek gizonezko edo emakumezko interpreteen artean aukeratu ahal izan dezaten, parekotasuna bultzatu behar da zeinu-mintzairaren interpreteen prestakuntzan.

3.12. Adimen-urritasuna duten emakumeek eta neskek eskuragarri izan behar dituzte emakumeentzako diren berariazko zerbitzuak eta material zehatz guztiak. Haiei behar bezala laguntzeko, zenbait baliabide hartu behar dira kontuan; besteak beste, irakurterraztasuna, piktogramen erabilera edota komunikazioan laguntzeko pertsona bat izatea, beharrezkoa denean.

3.13. Desgaitasuna duten emakumeei eta neskei buruzko dokumentuek eta haien eskubideei buruzkoek irakurterrazak izan behar dute, eta eskuragarri egon behar dute herri-hizkuntzetan, zeinu-mintzairan, braillen, handi daitezkeen formatuetan, eta komunikatzeko modu alternatiboetan, bai eta eskura dauden gainerako modu, bitarteko eta formatuetan ere, elektronikoak barne.

ONDASUN ETA ZERBITZUETARA JOTZEKO ERRAZTASUNA

3.14. Ezinbestekoa da produktu, objektu, tresna, lanabes eta gailu guztiak diseinatzean denen irisgarritasun unibertsala eta genero-ikuspegia kontuan hartzea, bermatu ahal izateko emakumeek eta neskek gehien erabiltzen dituztenak desgaitasuna duten emakumeek eta neskek ere eskuragarri izango dituztela, segurtasun- eta erosotasun-baldintzak betetzen dituztela, eta ahalik eta modu autonomo eta naturalenean erabiltzeko modukoak direla. Arreta berezia merezi dute desgaitasuna duten emakumeen sexu-osasunarekin lotutakoek (antisorgailuak, ginekologia-azterketak egiteko esku-oheak, mamografiak egiteko tresnak…) eta amatasunarekin zerikusia dutenek (kirtendun biberoiak, gurpildun aulkiari egokitzeko haur-kotxeak, edo horiek esku bakar batekin mugitu ahal izatekoak, pixoihalak aldatzeko lekuak altuera egokian…). Horiek guztiak erabilera publikoko katalogoetan sartu behar dira, eta prezio merkean eskaini. Fabrikatzaileei adierazi behar zaie objektuak diseinatzerakoan (ordulariak, gurpildun aulkiak, autoak…) kontuan hartu behar dutela bi sexuetako pertsonek erabili behar dituztela, eta emakumezkoentzako bertsioak ere eskuragarri jarri behar dituztela. Jostailu erabilerrazak fabrikatzen direla zaindu behar da.

3.15. Laguntzeko produktuak egiteko eta normalizatzeko ardura duten nazioetako eta Europako erakundeek aintzat hartu behar dituzte generoari buruzko alderdiak, eta desgaitasuna duten eta gai horretan adituak diren emakumezkoak izan behar dituzte beren lantaldeetan. Desgaitasuna duten pertsonen eguneroko bizimodua erraztea helburu duten ondasunak fabrikatzean guztiontzako diseinua erabiltzen duten enpresek finantzaketa publikoa jaso beharko lukete, edo zergetan murrizketak izan.

3.16. Desgaitasuna duten emakumeek eta neskek erabat eskuragarri izan behar dituzte emakumeei laguntzeko zerbitzu guztiak -bereziki, osasunaren, amatasunaren, emakumeen aurkako indarkeriaren eta haurren arretaren arlokoak-.

4. ARRISKU-EGOERAK ETA LARRIALDI HUMANITARIOAK

4. ARRISKU-EGOERAK ETA LARRIALDI HUMANITARIOAK

4.1. Arrisku-egoeretan eta larrialdi humanitarioetan, izugarri kaskartzen dira desgaitasuna duten emakumeen eta nesken segurtasun-baldintzak eta babesa, eta asko murrizten dira onik ateratzeko dauzkaten aukerak. Desgaitasuna duten emakumeak eta neskak askoz ere egoera ahulagoan egoten dira gainerako pertsonak baino arrisku-egoerak gertatu baino lehen, gertatzean eta gertatu ondoren; esaterako, gatazka armatuetan, lurralde okupatuetan, hondamendi naturaletan eta larrialdi humanitarioetan.

4.2. Larrialdi-egoeretan, litekeena da desgaitasuna duten emakume eta neska txiroen premiei aurre egin ezin izatea, dituzten baliabide urriak bizirik irauteko erabili behar badituzte haien familiek. Halako egoeretan, emakumeak ekonomikoki «errentagarriak» ez direla -are gutxiago desgaitasunen bat duten emakumeak- pentsatzen duten kultura askotako produkzio-sisteman gertatzen den egiturazko diskriminazioaren ondorioz, ugaritu egiten dira desgaitasuna duten emakumeen eta nesken abusu-kasuak eta/edo familiak zein komunitateak kalean abandonatuta uzten dituztenekoak.

4.3. Desgaitasuna duten emakume eta neska errefuxiatuek, gatazka armatua duten lurraldeetan bizi direnek edota lurralde okupatuetan bizi direnek arrisku handiagoa dute indarkeria edo sexu-abusua pairatzeko. Halako egoerak aurreikusi egin behar dira, eta ekintza humanitarioaren bidez behar bezala artatu. Horretarako, biktimek, osasun-laguntza egokia ez ezik, osasun mentalekoa ere jaso behar dute, bortxaketaren ondorio psikologikoei zein ondorengo estigmatizazioari aurre egin ahal izateko. Ezinbestezkoa da osasun-alorreko profesionalen laguntza jasotzea, bai eta abusuaren trauma gainditu duten emakume eta neskena ere, eta haien komunitatearena, desgaitasuna duten emakume eta neskak genero-indarkeriaren atzaparretatik atera, eta onera itzul daitezen.

4.4. Arrisku-egoeretan eta larrialdi humanitarioetan, desgaitasuna duten emakumeen eta nesken banakako premietan oinarritutako zerbitzuak eskaini behar dira, eta horiek eskuragarri dituztela bermatu, oztopo guztiak kenduta (fisikoak, komunikaziokoak, sozialak, kulturalak, ekonomikoak, politikoak, eta abar). Horrez gain, neurriak hartu behar dira landa-eremuetan eta urruti dauden eremuetan kalitatezko zerbitzuak ugaritzeko, eta arrisku handiko egoera bizi dutenei laguntza berezia eskaintzeko. Desgaitasuna duten emakumeek eta neskek gainerako pertsonen baldintza berberetan izan behar dituzte eskuragarri informazio publikoko eta kontzientziazioko kanpainak; esaterako, GIBa eta HIESa prebenitzeko kanpainak, eta sexu- eta ugalketa-osasunari buruzko kontzientziazio-programak.

4.5. Laguntzari eta arretari buruzko jarduerei dagokienez, ziurtatu behar da desgaitasuna duten emakumeak eta neskak integratzen dituztela, eta benetan eta aktiboki parte har-

tzen dutela haien ordezkari diren erakundeen bidez eta kasuan kasuko beste alde interesatu batzuen bidez; batez ere, honako arlo hauetan: ekintza-plan nazionalak, esparru juridikoa, politikak, aplikazio-mekanismoak, eta neurri horien jarraipen eta ebaluazioa.

4.6. Desgaitasuna duten emakumeek eta neskek laguntza handiagoa jaso behar dute sare sozialen aldetik. Senide, lagun edo auzoko baten heriotzak edo gaixotasun larriak trauma psikologiko eta min handia eragin dezake desgaitasuna duten emakumeengan eta neskengan, eta, halaber, horrelakoetan galdu egiten dute ohikoa duten laguntza-iturria.

4.7. Herrialde batzuek erantzun mugatua ematen dietenez arrisku-egoerei eta krisi humanitarioei, askotan ezinbestekoa izaten da nazioarteko laguntzara jotzea. Horrenbestez, funtsezkoa da gaia nazioarteko lankidetza-politiketan lantzea, milurtekoko garapen-helburuez baliatuta, arrisku-egoerak prebenitu ahal izateko eta horiei aurre egiteko, eta laguntza komunitarioa koordinatzeko.

4.8. Osasun publikoaren, hondamendi-egoeretarako prestakuntza-lanaren, larrialdietako laguntzaren eta laguntza humanitarioaren ardura duten nazioetako eta nazioarteko agentziak kontzientziatu egin behar dira desgaitasuna duten emakumeen eta nesken eskubideei eta berariazko premiei buruz, biztanleria anitza eta heterogeneoa baita. Modu berezian, arrisku- eta larrialdi-egoeretan desgaitasuna duten emakumeen eta nesken irisgarritasun unibertsala eta aukera-berdintasuna ziurtatuko duten giza baliabideak eta baliabide materialak eskuragarri edukitzearen premiaz jabetu behar dute; izan ere, horrela, eragotzi egingo da artarik gabe gelditzea eta/edo esku-hartzea desegokia izatea.

5. LEGEAREN AURREAN PERTSONA GISA BERDINTASUNEZ AINTZAT HARTZEA ETA JUSTIZIARA ERAGINKORTASUNEZ JOTZEA

5. LEGEAREN AURREAN PERTSONA GISA BERDINTASUNEZ AINTZAT HARTZEA ETA JUSTIZIARA ERAGINKORTASUNEZ JOTZEA

5.1. Desgaitasuna duten emakumeak eta neskak «ikusezinak» direnez gizartearentzat, nozio okerrak daudenez haien inguruan, eta ez zaizkienez haien giza eskubideak eta oinarrizko askatasunak aitortzen, sektore honi askotan urratzen zaizkio pertsona gisa legearen aurrean berdintasunez aintzat hartzeko eskubidea eta justizia eskuragarri izateko eskubidea. Desgaitasuna duten emakumeak apenas sentitzen dira eskubideen titular; aitzitik, tratu diskriminatzaile justifikatua merezi dutela sentitzen dute, errudun sentitzen direlako eta besteentzat karga modukoa direla iruditzen zaielako. Sentimendu hori areagotu egiten da desgaitasuna duten emakumeei salaketa jartzen saiatzen direnean ematen zaien sinesgarritasun eskasaren ondorioz. Lehenbailehen landu behar dira desgaitasuna duten emakumeekin eta neskekin haiei dagozkien oinarrizko eskubideei buruzko gaiak, eta salaketak jartzeko dauden prozesuak, lankidetzan arituta gizarte-zerbitzuekin eta haien erreferentziazko taldeen erakundeekin -batez ere, desgaitasuna duten emakumeenekin-, horretarako defentsa-gidak eginez eta herritarren artean zabaltzeko beste material eskuragarri batzuk sortuz.

LEGEAREN AURREAN PERTSONA GISA BERDINTASUNEZ AINTZAT HARTZEA

5.2. Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Konbentzioko 12. artikuluak ezarritakoaren arabera, desgaitasuna duten pertsonek eskubidea dute toki guztietan nortasun juridikoa onar diezaieten bizitzaren alderdi guztietan, gainerako pertsonen baldintza berberetan. Desgaitasuna duten emakumeek gaitasun juridikoa erabili ahal izango dute erabakiak beren kabuz hartuz; ugalkortasunari, ama izateko eskubideari eta harremanak izateari buruzkoak barne. Horrez gain, ondasunak edukitzeko eta oinordetzan hartzeko eskubidea dute, beren kontu ekonomikoak zaintzeko eskubidea, eta bankumaileguak, hipotekak eta finantza-krediduko bestelako modalitateak eskatzeko eskubidea, gainerako pertsonen baldintza berberetan.

5.3. Neurri eraginkorrak hartu behar dira desgaitasuna duten emakumeei gaitasun juridikoa erabiltzeko behar lezaketen laguntza emateko. Laguntza hori, eskatzen dutenean, eskubide zibilen eta politikoen alorrean erabakiak hartzeko dituzten behar eta gaitasun pertsonalekiko proportzionala izango da. Baina, horrez gain, beren buruarekiko konfiantza lortzera bideratutako jarduerak ere hartuko ditu laguntza horrek, desgaitasuna duten emakumeei beren jarduerek edo ez-egiteek izan ditzaketen eraginak edo ondo-

rioak ebaluatzen laguntzeko; batez ere, gizarteak haiei buruz erabat barneratuta eta onartuta dituen ohiturei aurre egin behar dietenean; izan ere, jende askok pentsatzen du desgaitasuna duten emakumeak pertsona asexuatuak direla, hirugarren pertsonen mende daudela, lan-alorrean ez direla produktiboak, eta ez direla amatasun-eskubidea erabiltzeko gai. Desgaitasuna duen emakumeak hautatu egin behar du; hautatzerik ez duenean, baimena eman behar dio erabakiak hartzen lagunduko dion pertsonari.

5.4. Neurri egoki eta eraginkorrak hartu beharko dira hirugarren pertsonek edo erakundeek gehiegikeriarik egin ez dezaten desgaitasuna duten emakumeak gaitasun juridikoa erabiltzen ari direnean. Esate baterako, haien benetako premiei buruzko ebaluazio inpartzialak egin behar dira, aitortuta dauden aditu independenteen balorazioen bidez; ezarritako neurriak berrikusi behar dira aldizka; eta hartutako erabakiak errekurritzeko aukera izan behar dute. Desgaitasuna duen emakumeak zer nahi duen, hura izango da beti faktore erabakigarria prozesu osoan.

5.5. Desgaitasuna duten pertsonen egitura eta sare formalak zein informalak bultzatu, ezarri eta finkatuko dira, batez ere emakumeenak; izan ere, horiek eskaintzen dute laguntza desgaitasuna duten emakumearen autodeterminazioaren hasieran, beren kabuz bizitzen hasten direnean. Desgaitasuna duten emakumeek erabiltzen dituzten komunikazio-mota guztiak bultzatu behar dira, eta baliozkoak izango dira haiei erabakiak hartzen laguntzeko.

JUSTIZIARA ERAGINKORTASUNEZ JOTZEA

5.6. Desgaitasuna duten emakumeek justiziara eraginkortasunez jotzeko aukera dutela bermatu behar da, bertaratzeko modu erraz eta segurua dutela, eta prozesuaren fase guztietan dituztela ahozko komunikazioan laguntzeko haiek aukeratzen dituzten sistemak eta teknologiak, zeinu-mintzairaren interpreteak edo gor-itsuentzako gida-interpreteak, helburua poliziarekin eta alor judizialeko langileekin behar bezala komunika daitezen bermatzea baita. Desgaitasuna duten emakume asko bizi direnez haien zaintzaileen menpe, eta zaintzaile horiek emakumeak jo eta abusatu egiten dituztenez zenbaitetan, emakume horiekin komunikatzeko modu independenteak ezarri behar dira, salaketak jartzeko aukera izan dezaten, eta ahalik eta lasterren arreta osoko zentroren batera eraman ahal izan daitezen denboraldi batez, salaketa auzitegian ebatzi arte.

5.7. Informazio-, trebakuntza- eta kontzientziazio-programak bermatuko zaizkie desgaitasuna duten emakumeei eta neskei, bai eta desgaitasuna duten seme-alaben amei ere, haiek dituzten oinarrizko eskubideei eta askatasunei buruz eta justiziara jotzeko dituzten aukerei buruz. Kontuan hartuko dira, bereziki, diskriminazio-egoera bizitzeko arrisku handiak dituzten taldeak; esaterako, laguntza-premia handiak dituzten emakumeak,

instituzionalizatuak, edadetuak, landa-ingurunean bizi direnak edo etnietakoak, kasuan kasuko komunitateko gehienek ez bezalako sexu-joerakoak edo erlijiokoak.

5.8. Halaber, antzeko programak bermatuko dira haien senideentzat, zerbitzua ematen dutenentzat, haien hurbileko pertsonentzat, bai eta emakumeen edo desgaitasuna dutenen erakundeetako ordezkarientzat ere.

5.9. Justizia Administrazioan lan egiten duten pertsona guztiak, polizia-etxeetan eta kartzeletan lan egiten dutenak barne, generoari eta desgaitasunari buruz behar bezala prestatuta egon daitezen bultzatu behar da, desgaitasuna duen emakumeari buruz gizarteak duen irudi okerra ezabatzeko, eta paradigma berria goratzeko (hau da, eskubideak dituen pertsonaren irudi positiboa oinarri duen irudia), garrantzi berezia emanda, ororen gainetik, emakumea izateari, batez ere dibortzio- eta banaketa-egoerekin eta adingabeen zaintza eta tutoretza lortzeko egoerekin zerikusia duten gaietan, desgaitasuna duten seme-alaben amen kasuetan barne.

5.10. Zuzenbide penal materiala eta prozedura judizialak berrikusi egingo dira, desgaitasuna duten emakumeen aurkako indarkeria-egoerak hautemateko, desgaitasuna faktore erabakigarria izan denean egintza kriminal horietan. Horrela, sententzia gogorragoak emateko bidea ezarriko dute, mota horretako jarrerak zigortzeko, biktima horien egoera berezia dela-eta.

5.11. Izapidetze legaletan, desgaitasuna ez litzateke inoiz erabili beharko seme-abalak desgaitasuna duen amarengandik aldentzeko edota desgaitasuna duten haurrak amarengandik aldentzeko argudio gisa. Desgaitasuna duten amek laguntzaren beharra dutenean ama-zereginak bete ahal izateko, premia indibidualen eta pertsonalen arabera eta haurrei ondoen datorkienaren arabera emango zaie laguntza.

6. EMAKUMEAREN AURKAKO INDARKERIA

6. EMAKUMEAREN AURKAKO INDARKERIA

6.1. Emakumearen aurkako indarkeria diskriminazio-mota bat da, eta urratu egiten ditu emakumearen giza eskubideak. Genero-indarkeriako ekintza oro joko da emakumeen aurkako indarkeriatzat, baldin eta ekintza horrek emakumeari kalte fisiko, sexual, psikologiko edo ekonomikoa edo sufrimendua eragiten badio edo eragin badiezaioke. Ekintza horien artean sartzen dira emakumea ekintza horiek egitearekin mehatxatzea, hertsapena erabiltzea, eta nahierara askatasunaz gabetzea, bizitza publikoan zein pribatuan (2). Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Konbentzioan xedatutakoaren arabera, Europar Batasunak eta Estatu kideek behar diren neurriak hartuko dituzte (lege-mailakoak, administratiboak, sozialak, hezkuntza-alorrekoak, eta abar) desgaitasuna duten emakumeak eta neskak esplotazio-, indarkeria- eta abusu-mota ororen aurka babesteko, etxean zein etxetik kanpo.

6.2. Egiaztatuta dago desgaitasuna duten emakumeak eta neskak mota askotako indarkeria-ekintzen biktima izan daitezkeela, ekintza horiek etxean bertan edo erakundeetan gerta daitezkeela, eta egileak senideak, haien zaintzaz arduratzen direnak edo ezezagunak izan daitezkeela. Behar beste neurri hartu behar dira haien aurkako esplotazio-, indarkeria- eta abusu-mota oro eragozteko, eta haien behar bereziak kontuan hartuta laguntzeko eta arreta emateko.

6.3. Emakumearen aurkako indarkeriatzat hartu behar dira borondatearen aurka antzutzea eta abortatzea. Ekintza horiek desagerrarazi egin behar dira, eta aho batez salatu behar dituzte Europar Batasuneko eta Estatu kideetako agintari eskudunek. Ekintza horiek, halaber, tortura edo tratu anker edo iraingarria ere izan daitezke, eta, hortaz, salatu eta zigortu egin behar dira.

6.4. Desgaitasuna duten emakume lesbianek eta bisexualek arrisku handiagoa dute abusuaren eta sexu-indarkeriaren biktima izateko, eta sarritan erantzun desegokia jaso dezakete agintari eskudunen aldetik. Desgaitasuna duten emakume transexualak ere izan daitezke indarkeriaren biktima, batez ere espazio publikoetan. Egoera horiek guztiak kontuan hartu behar dira desgaitasuna duten pertsonei buruzko kontzientziazio-kanpainetan eta irudi sozialean, eta herritar horien aniztasuna erakutsi behar da, haien joera sexualari edo sexu-identitatearen aldaketari dagokionez.

6.5. Indarkeriaren eta sexu-abusuaren aurkako babes-zerbitzuetako langileak eta profesionalak treba daitezen sustatu behar da, desgaitasuna duten emakumeek eta neskek esparru horretan dituzten berezitasunei eta premia jakinei buruzko ezagutzak eskura ditzaten, aniztasunari eta heterogeneotasunari arreta berezia eskainita. Trebakuntza hori emakume horiekin zuzenean lan egiten dutenentzat ere izango da -besteak beste, era-

---

(2) Emakumearen Aurkako Indarkeria Ezabatzeari buruzko Adierazpena. Nazio Batuen Batzar Orokorrak onartutako Ebazpena (Hirugarren Batzordearen txostena oinarri hartuta [A/48/629]). 48/104 Ebazpena.

kundeetan, arreta-zentroetan, egoitzetan, geriatrikoetan eta ikastetxeetan lan egiten dutenentzat-.

PREBENTZIOA

6.6. Onartu beharra dago desgaitasuna funtsezko gai bat dela, eta emakumearen aurkako indarkeria prebenitzea, ezabatzea eta irisgarritasun unibertsalaren printzipioa bermatzea helburu duten politika, ekintza eta neurri guztietan txertatu behar dela.

6.7. Esplotazio-, indarkeria- eta abusu-kasuak prebenitzeko, halako kasuren bat izan daitekeela jakiteko, eta horiek salatzeko, prestakuntza egokia eman behar zaie desgaitasuna duten emakumeei eta neskei, bai eta haien senideei eta ingurune hurbilean dituzten pertsonei ere. Horrez gain, erraz ulertzeko moduan eta formatu eskuragarrietan eman behar zaie horiei aurre egiteko dauden laguntza-zerbitzuei eta neurri legalei buruzko informazioa.

6.8. Desgaitasuna duten emakumeek arrisku handiagoa dute indarkeriaren biktima izateko; horretan badu zerikusirik haien irudi sozialak, bai eta haien aurkako sexu-abusuak azaltzeko edo justifikatzeko erabili ohi diren argudioak ere, irrazionalak maiz. Emakumearen aurkako indarkeriari buruz egiten diren kontzientziazio-kanpaina orokorretako materialetan eta profesionalentzat prestatzen diren prestakuntza-ikastaroetan, desgaitasunaren gaia erantsi behar da. Kanpaina eta material horiek denen eskura jarri behar dira.

6.9. Aztertu egin behar da Europar Batasunak eta Estatu kideek zenbateraino bermatzen duten desgaitasuna duten nesken eta emakumeen integrazioa prebentzioko programa orokorretan eta irtenbideei buruzko informazio-kanpainetan, bai eta horiek zenbateraino dituzten eskuragarri ere. Hala, azterlan horien emaitzen arabera ezarriko dira neurriak, diskriminatuta egongo ez direla eta horietan guztietan pate hartzen dutela ziurtatzeko.

6.10. Esplotazio-, indarkeria- eta abusu-kasuak ez gertatzeko, bermatu behar da agintari independenteek eraginkortasunez berrikusten dituztela desgaitasuna duten emakumeentzat eta neskentzat diseinatutako zerbitzu eta programa guztiak. Desgaitasuna duten neska eta emakume instituzionalizatuen indarkeria-egoerak garaiz hautemateko sistemak garatu behar dira, bai eta ingurune itxietan eta bereizitako inguruneetan bizi direnenak, eta haiei laguntzeaz arduratzen diren profesionalentzat indarkeria eta abusua prebenitzeko protokoloak ezarri, bai eta babes eraginkorrak emakumeentzat ere.

BIKTIMEN ARTA ETA SENDABIDEA

6.11. Ekintza positiboko neurri zehatzak bultzatu behar dira, desgaitasuna duten emakumeen eta nesken aurkako indarkeriaren izaera berezia kontuan hartuko dutenak; horreta-

rako, gizatalde horren aniztasuna hartu behar da kontuan, politika eta zerbitzu orokorretatik kanpo gera ez dadin.

6.12. Desgaitasuna duten emakumeak ikastetxeetan, egoitza-erakundeetan, ospitaleetan edo errehabilitazio-zentroetan baztertu eta bakartzen baditugu, eta komunikatzeko eta lekualdatzeko laguntzarik jasotzen ez badute, areagotu egingo da indarkeriaren eta sexu-abusuen biktima izateko daukaten arriskua, eta zigorgabetasunean gertatuko dira indarkeria-ekintzak. Beste hainbeste gertatzen da errefuxiatu-esparruetan, arrisku-egoeretan edo larrialdi humanitarioko egoeretan bizi diren emakumeen eta nesken kasuan. Emakumearen aurkako indarkeriaren alorreko zerbitzuetan eta programetan nahitaez hartu behar dira kontuan halako egoerak.

6.13. Adimen-urritasuna duten emakumeek -indarkeria edo abusua salatzeko arazoak izaten dituzte askotan- eta arazo psikosozialak dituztenek -«buruko gaixotasun» sintomatzat hartu ohi dituzte haien lekukotasunak- indarkeriaren edo sexu-abusuaren biktima izateko arrisku handiagoa dute. Halako gertaerak salatzeko adierazpenetan eta lekukotasunetan, sinesgarritasuna eman behar zaie desgaitasuna duten emakumeen eta nesken lekukotasunei, arrazoi horrengatik diskriminaziorik egin gabe.

6.14. Edonolako esplotazio-, indarkeria- eta abusu-motaren biktima izan diren eta desgaitasuna duten emakumeen eta nesken sendabidea, errehabilitazioa eta gizarteratze fisiko, kognitibo eta psikosoziala eskuragarriak izan behar dira, eta emakumezkoaren osasuna, ongizatea, norberaren buruarekiko errespetua, duintasuna eta autonomia bultzatuko duten ingurunean gauzatu behar dira. Horretarako, haiek askatasunez emandako oniritzia jaso beharko da, eta adinaren arabera zer behar zehatz dituzten hartu beharko da kontuan. Desgaitasuna duten eta indarkeriaren biktima izan diren emakumeek eta neskek eskubidea dute azterketa egin diezaieten eta sendabidea eman diezaieten.

6.15. Desgaitasuna duen emakume baten aurkako indarkeria-ekintzaren bat gertatzen denean, arlo horretan eskumena duten gizarte-zerbitzuek ahalik eta lasterren eskaini behar diete, emakumeari eta bere seme-alabei, aldi baterako egonleku segurua, eta behar beste neurri hartuko dituzte etxera itzultzeko prozesua azkartzeko, segurtasun-berme guztiak dituztela. Delitua egin duenak ezin izango du, inola ere, haien egonlekura joan.

6.16. Desgaitasuna duten emakumeei -edozein dela ere beren desgaitasuna- erraztu egin behar zaie etxebizitza babestua izateko aukera (emakumeentzako aterpetxeak, arreta-zentroak, gizarte-zerbitzuak...), bai eta indarkeriaren eta sexu-abusuaren aurka babesteko dauden beste zerbitzu guztiak ere (liburuxkak, telefono-zenbakiak, terapeutak…). Etxeko indarkeria-kasuan, bereziki kontuan hartuko dira haien premia fisikoak, komunikaziokoak, sozialak eta emozionalak.

6.17. Desgaitasuna duten amek eta desgaitasuna duten haurren amek, indarkeria-biktima izan direnean, eskubidea dute beren seme-alabekin egoteko bideratzen dituzten egoitzetan, eta egoitza horietan laguntza jasotzeko eta arretarako behar beste bitarteko izango dituzte.

LEGEGINTZA-NEURRIAK

6.18. Europar Batasunak eta Estatu kideek legedia berrikusi behar dute, desgaitasuna duten emakumeak eta neskak diskriminatuko ez direla bermatzeko. Horretarako, honako hauek izango dituzte kontuan: emakumeen aurkako indarkeria eta etxeko indarkeriaren aurkako prebentzioari eta borrokari buruzko etorkizuneko konbentzioa, desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Nazio Batuen konbentzioak, eta emakumearen aurkako diskriminazio-mota oro desagerrarazteari buruzkoa.

6.19. Lege eta politika eraginkorrak ezarriko dira, emakumean eta haurtzaroan oinarrituta daudenak barne, desgaitasuna duten pertsonen aurkako esplotazio-, indarkeria- eta abusu-kasuak hauteman, ikertu eta, hala badagokio, epaitu egingo direla ziurtatzeko.

AZTERLANAK ETA IKERKETAK

6.20. Europar Batasunak eta Estatu kideek beharrezko neurriak hartuko dituzte desgaitasuna duten eta indarkeria pairatzen duten emakumeen eta nesken egoerak aztertzeko baliagarriak izango diren ikerketak gara daitezen, arrisku handienean daudenen egoera aintzat hartuta.

6.21. Europar Batasunak eta Estatu kideek egiten dituzten txosten ofizialetan, eraginkortasunez txertatu behar da desgaitasunaren adierazlea, desgaitasuna duten emakumeek bizi duten indarkeria agerian gera dadin. Txosten horietan, datuak sexuaren arabera eta beste faktore erabakigarri batzuen arabera (adina, arraza edo etnia, desgaitasuna…) bereizita bildu behar dira sistematikoki, eta emakumearen aurkako indarkeria-mota ororen prebalentzia zehaztuta. Ondoko alderdi hauek ere adierazi behar dira: emakumearen aurkako indarkeriaren kausak eta ondorioak, eta emakumearen aurkako indarkeria prebenitzeko eta konponbidea emateko aplikatzen diren neurri guztien eraginkortasuna.

6.22. Europar Batasunak eta Estatu kideek genero-indarkeriaren prebentzio-egoerari eta genero-indarkeriaren aurkako borrokari buruz urtero egiten duten txostenean, elkarreragin-ikuspegitik txertatu behar da desgaitasuna, bai eta helburuak lortzeko egindako lana ere -esaterako, gobernuen erakundeek, poliziak, epaitegiek eta gizarte-zerbitzuek bildutako datuak-; hori guztia, gizarte zibilarekin lankidetzan arituta. Horrez gain, prestakuntzari buruzko ebaluazioa egin behar dute, eta monitorizatu egin behar dituzte emakumeen aurkako indarkeria eta etxeko indarkeria prebenitzeko eta horiei aurre egiteko ezarritako politikak eta hartutako neurriak.

6.23. Emakumearen aurkako indarkeriari buruz Nazio Batuen Giza Eskubideen Batzordeko errelatore bereziak egiten dituen ikerketetan, desgaitasuna duten nesken eta emakumeen egoera gehitu behar da, bai eta nazioarteko beste itun batzuetako batzordeek egiten dituzten lanetan ere.

7. KOMUNITATEKO BIZITZA

7. KOMUNITATEKO BIZITZA

7.1. Desgaitasuna duten emakumeek komunitatean bizitzeko eskubidea dute, gainerako pertsonek dituzten baldintza berberetan, eta komunitate horretan erabat integratzeko eta bertan parte hartzeko aukera bermatu behar zaie. Halaber, eskubidea dute zein herritan biziko diren aukeratzeko, bai eta non eta norekin ere, beste pertsona batzuek derrigortutako bizimodua egin beharrik gabe.

7.2. Desgaitasuna duten emakumeek hirugarrenekiko eta erakundeekiko mendetasun handiagoa dutenez, bereizitako inguruneetatik kanpo bizitzeko aukera eman behar zaie, gainerako pertsonek dituzten baldintza berberetan. Halaber, beren etxeetan zenbait komunitate-laguntza jaso dezaten bultzatu behar da, bai eta etxebizitza partekatuak, etxebizitza babestuak edo egoitza txiki komunitarioak izan ditzaten ere; horrela, gizartean bakartzea eragotziko da, eta komunitatean integratzea bultzatuko. Berariazko premien arabera, desgaitasuna duten emakumeek eta neskek laguntza-zerbitzuak izan behar dituzte komunitatean, egokiak, prezio merkean, eskuragarriak eta onargarriak.

7.3. Bizkortu egin behar da desgaitasuna duten emakumeak eta neskak bereizitako laguntza-zentroetatik desinstituzionalizatzeko prozesua -besteak beste, osasun-etxeak, psikiatrikoak, erreformatorioak, geriatrikoak, adingabekoentzako umezurtz-etxeak edo abegi-etxeak-, eta desgaitasuna duten emakumeen eta nesken artean hirugarrenekiko mendekotasun handiena dutenei autonomia pertsonala bultzatzeko laguntzak eman behar zaizkie, bizitza-maila egokia izan dezaten eta komunitatean benetako partaide izan daitezen.

7.4. Desgaitasuna duten neskak ezkutuan, abandonatuta eta bereizita gera ez daitezen, eta zabarkeriarik jasan ez dezaten, familientzako informazio-kanpainak bultzatu behar dira, eta haiei laguntzeko eskura dituzten eta gerora izango dituzten komunitate-laguntzei buruzko informazioa eman behar zaie, estereotipo sexistak eta diskriminatzaileak desagerrarazten laguntzeko. Hurbileko familiak ezin badu desgaitasuna duen haurra zaindu, administrazio publikoek beste arreta-gune bat eskainiko diote gainerako senideen artean, eta hori ezinezkoa bada, komunitatean, familia-ingurune batean. Desgaitasuna duten haurren familia-harrera eta adopzioa sustatu behar dira, eta, horretarako, arindu egin behar dira prozedura burokratikoak. Bestalde, desgaitasuna duen pertsona ororen giza eskubideei eta oinarrizko askatasunei buruzko informazio egokia eman behar zaie harreran edo adopzioan hartzen dituzten familiei.

7.5. Ezinbestez bermatu behar da desgaitasuna duten emakumeek etxebizitza sozialen programak eskura dituztela, bakarka zein norbaitekin; horretarako, laguntza ekonomikoak eman behar zaizkie, etxean oztopoak kentzeko. Laguntza horiek alokairuko etxebizitzen kasuan ere eman beharko dira.

7.6. Desgaitasuna duten emakume guztien esku jarri behar dira etxez etxeko zerbitzua, egoitza-zerbitzua eta komunitatean laguntzeko beste zerbitzu batzuk, haien sexua eta desgaitasuna errespetatuz. Arreta berezia eskaini behar zaie hirugarrenekiko mendekotasun handia duten emakumeen eta nesken beharrei.

7.7. Laguntza instituzionalek, askotan, mugarazi egiten dituzte gizabanakoen garapena, autoestimua eta autodeterminazioa; hortaz, agintari independenteek berrikusi egin beharko lituzkete desgaitasuna duten pertsonei laguntzeko diseinatzen diren zerbitzu eta programa guztiak, Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Konbentzioak jasotzen dituen giza eskubideak eta oinarrizko askatasunak urra ez daitezen. Ezinbestekoa da indarkeriari eta abusuari arreta berezia eskaintzea, halakoak prebenitzeko eta garaiz hautemateko protokolo argi eta gardenak ezarrita.

7.8. Desgaitasuna duten emakumeek, haien ordezkari diren erakundeen bidez, parte hartu behar dute zerbitzu-hornitzaileei gomendioak ematen, zerbitzu horien kalitatea kontrolatzeko eta desgaitasuna duten emakumeen eta nesken berariazko premiei erantzuteko egokiak direla zaintzeko.

EGOITZA-ZERBITZU KOMUNITARIOAK

7.9. Egoitza-zerbitzu komunitarioak eskuragarri izan behar dituzte desgaitasuna duten emakumeek. Genero-ikuspegia aintzat hartu behar da bai eraikitako ingurunea eta hirigintza-kokapena diseinatzean, bai zerbitzu eta ekipamenduak diseinatzean.

7.10. Desgaitasuna duten emakumeek aukera izan behar dute emakumeentzat soilik diren bizitokien eta mistoen artean hautatzeko. Beste horrenbeste haien zaintzaz arduratzen diren langileei eta laguntzaile pertsonalei dagokienez.

7.11. Harrera-egoitzetako langileek desgaitasuna duten emakumeen berezitasunei buruz behar bezalako prestakuntza izan dezaten bultzatu behar da, eta genero-indarkeria prebenitzeko protokoloak ezarri behar dira langile horien eguneroko lanerako.

7.12. Egoitza-zerbitzu komunitarioek nork bere bizimodua egiteko aukera eman behar diete desgaitasuna duten emakumeei, haiek nahi bezala bizi daitezen; horrez gain, haien autodeterminazioa bermatu behar dute.

7.13. Desgaitasuna duten amek ere aukera izan behar dute beren seme-alabekin bizitoki komunitario horiek hautatzeko, beharrezko dituztenean, eta behar beste bitarteko emango zaizkie, amatasuna gara dezaten.

LAGUNTZA ETA PREMIA TEKNIKOAK

7.14. Gaur egun, desgaitasuna duten emakumeek eta neskek mugatuta dute beren premia berezietara egokitutako laguntza-ekipoak eta -produktuak eskuratzeko aukera. Gailu horiek, askotan, oso garestiak izaten dira. Oso komenigarria da eskualde- eta nazio-mailako programak abian jartzea, horien bidez laguntza-ekipoak eta -produktuak fabrika daitezen sustatzeko, bai eta desgaitasuna duten emakumeak horien fabrikazioan eta erabileran trebatzeko ere.

7.15. Laguntza-produktu horiek desgaitasuna duten emakumeen eta nesken premia funtzionalei egin behar diete aurre, eta diseinuari, materialari eta kalitateari dagokienez, kontuan hartu behar dituzte estetika-irizpideak. Laguntza-produktu horiek ezin badira norberaren herrialdean eskuratu, ekipoak inportatu eta eskuragarri jar daitezen bultzatu beharko da.

7.16. Desgaitasuna duten emakumeek eta neskek beren premia bereziei aurre egiteko berariaz diseinatutako laguntzak eta arreta teknikoak behar dituzte. Zerbitzu horiek haien kultura- eta erlijio-ohiturak aintzat hartuta eman behar dira.

7.17. Europar Batasunak eta Estatu kideek beharrezko politika finantzarioa, fiskala, zerga-alorrekoa eta inportatzeko eskubideei buruzkoa izan behar dute, bermatu ahal izateko laguntzarako gailu horiek desgaitasuna duten emakumeen eta nesken esku ere jarri direla, ahalik eta merkeen eta ohiko ondasunen eta produktuen irisgarritasun-baldintza berberetan; hortaz, pobreziaren faktorea oinarrizko adierazletzat hartu behar da politika horiek garatzerakoan.

MENTORETZA

7.18. Desgaitasuna duten emakumeek eskura izan behar dituzte desgaitasuna duten eta antzeko egoerak bizi dituzten beste emakume batzuek eskaintzen dituzten orientazio-zerbitzuak. Halaber, haiek aukeratzen duten zerbitzuari buruzko orientazioa jasotzeko eskubidea dute, gainerako pertsonek dituzten baldintza berberetan, eta, horrez gain, aukera dute behar bezala ordezka ditzaten emakume-erakundeetan eta desgaitasuna duten pertsonen erakundeetan.

7.19. Desgaitasuna duten emakumeen boluntariotza aktibo horrek, gobernantza sozialaren funtsezko elementua den aldetik, agerian uzten du herritar-talde aktibo eta komunitatearekiko konpromisoa duen talde horren elkartasuna. Desgaitasuna duten emakumeen boluntariotza soziala eragile garrantzitsua da, eta, aldi berean, ezinbestekoa da gizarte-aldaketarako; izan ere, desgaitasuna duten emakumeak eta neskak ez diskriminatzeko

eta haiek erabat gizarteratzeko lan egiteko konpromisoa hartu dute. Desgaitasuna duten emakumeei laguntzeko boluntariotza soziala bultzatzen duten neurriak eraginkortasunez sustatzen direla bermatu behar da, helburu hauek lortzeko: ahalik eta pertsona gehien aritzeko -batez ere, desgaitasuna duten emakumeak- mota horretako jardueretan, inter pares ikas dezaten bultzatzeko, eta toki-, eskualde-, nazio-, Europa- eta nazioarte-mailan jardunbide egokiak elkarren artean trukatzeko eta ezartzeko.

7.20. Ezinbestez ezarri behar dira mekanismoak eta egiturak, desgaitasunaren inguruko hirugarren sektore sozialeko erakundeek boluntariotza aktiboa susta dezaten desgaitasuna duten emakumeen artean, eta boluntariotza ezagutarazten eta garatzen lagun dezaten, desgaitasuna duten emakume-sareak sustatuta.

8. SEXU- ETA UGALKETA-ESKUBIDEAK

8. SEXU- ETA UGALKETA-ESKUBIDEAK

8.1. Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioko 23. artikuluari jarraiki, desgaitasuna duten emakumeek, ezkontzeko adina dutenetik, ezkontzeko eta familia osatzeko eskubidea dute, beren erabakia askea eta informatuta bada, bai eta bikote-bizitza egonkorra eratzen duen elkarketa afektibo mota oro osatzeko ere, botere publikoek babesteko modukoak; esaterako, izatezko bikote edo elkarketak. Horrez gain, zenbat seme-alaba izan nahi dituzten erabaki dezakete, ugalketari eta familia-plangintzari buruzko informazioa eskuragarri izan behar dute, eta eskubidea dute ugalkortasuna izaten jarraitzeko, gainerako pertsonek dituzten baldintza berberetan. Desgaitasuna duten emakumeei bitarteko egokiak eskaini behar zaizkie eskubide horiek erabili ahal izateko; horretarako, beharrezko neurriak hartu behar dira, sexu- eta ugalketa-eskubideekin zerikusia duten gai guztietan desgaitasuna duten emakumeen aurkako diskriminazioa desagerrarazteko. Edonola ere, emakumeek gorputza eta sexualitatea kontrolatzeko duten eskubidea izango da beti lehentasunezkoa.

8.2. Gizarteak oro har eta familiak bereziki pentsatu izan dute desgaitasuna duten emakumeak asexuatuak direla, eta ez direla bikote-bizimodua izateko eta ama izateko gai; horrenbestez, haien sexu-premiak oso gogor erreprimitu dira. Beharrezkoa da, beraz, desgaitasuna duten emakumeek eta neskek dituzten sexu- eta ugalketa-eskubideei buruzko prestakuntza-mintegiak egitea, bai haientzat, bai haien familientzat. Horrez gain, laguntza eskaini behar zaie, bereziki gizarte-bazterketa bizitzeko arrisku handia dutenei, laguntza-premia handia dutenei, adimen-urritasuna eta psikosoziala dutenei, eta goritsuei, besteak beste.

SEXU-ESKUBIDEAK

8.3. Sexu-eskubideak erabat bermatuta izan behar dituzte desgaitasuna duten nerabeek eta emakumeek, gainerakoen baldintza berberetan, haien adostasunarekin eta elkarrekiko errespetuarekin, eta sexu-harremanetan eta horien ondorioetan erantzukizunak banatuz. Sexualitatearekin zerikusia duten alderdi guztiei buruz askatasunez eta erantzukizunez erabakitzeko askatasuna adierazten du sexu-eskubideak (arriskurik gabeko sexualitatea izateko eskubidea, sexualitatearekin loturiko diskriminaziorik eta indarkeriarik gabe, eta behartu gabe; sexualitateari buruzko informazioa jasotzeko eskubidea; eta osasun-zerbitzuak erabiltzeko eskubidea).

8.4. Desgaitasuna duten nerabeek eta emakumeek sexualitate mugatua dutenez eta beren sexualitatearekiko kontrol gutxi dutenez, arrisku handiagoa daukate sexu-esplotazioaren eta sexu-indarkeriaren biktima izateko, nahi gabe haurdun geratzeko, eta sexu-transmisioko gaixotasunak izateko. Desgaitasuna duten neskek, nerabeek eta emakumeek eskuragarri izan behar dute hezkuntza afektibo-sexuala, osasuntsu bizi ahal izan

dezaten sexualitatea. Gorputzaren funtzionamenduari buruzko alderdiak ezagutarazi behar zaizkie (nola gera daitezkeen haurdun eta nola eragotz dezaketen; zer egin behar den sexu-harremana komunikatiboa eta gozagarriagoa izateko; zer egin behar duten nahi ez dituzten jarduerei uko egiteko; nola eragotz daitezkeen sexu-transmisioko gaixotasunak...). Gaian aditu diren profesionalek eman behar dituzte azalpenak; esaterako, tokiko gizarte-zerbitzu publikoetako hezitzaileek.

8.5. Desgaitasuna duten lesbianei, emakume bisexualei eta transexualei bermatu egin behar zaizkie familia osatzeko, harremanak izateko, sexu-kontaktuak izateko eta ama izateko eskubideak. Homosexualitatearen aurka dauden aurreiritziak ez dira oztopo izango desgaitasuna duten lesbianek, emakume bisexualek eta transexualek beharrezkoa duten laguntza finantzarioa nahiz teknikoa erabiltzeko, independentzia ekonomikoa izateko, edo bizitza independentea izateko, bizimodu independentea izan zein erakunde batean bizi.

UGALKETA-ESKUBIDEAK

8.6. Pertsona orok seme-alabarik izango duen edo ez, zenbat, noiz eta norekin askatasunez eta erantzukizunez erabakitzeko dituen askatasuna eta autonomia dira ugalketa-eskubideak. Horrez gain, honako hauek ere biltzen ditu: horretarako informazioa, hezkuntza eta bitartekoak izateko eskubidea; ugalketari buruzko erabakiak hartzeko eskubidea, diskriminaziorik eta indarkeriarik gabe, eta behartua izan gabe; kalitatezko lehen mailako laguntza-zerbitzuak izateko eskubidea; eta amatasuna babesteko neurrien hartzaile izateko eskubidea. Horiek guztiak osotasunez bermatu behar zaizkie desgaitasuna duten nerabeei eta emakumeei, haien oniritziarekin eta elkarrekiko errespetuarekin.

8.7. Urte askotan, haurdun geratzearen beldurra eta horren ondorioak izan dira desgaitasuna duten emakumeen familiek eta zaintzaileek izan duten kezka nagusia; besteak beste, pentsatu izan delako emakume horiek ez daukatela haurra zaintzeko gaitasunik eta/edo bitarteko nahikorik, amari ondorio fisikoak eragingo dizkiola, eta haurrak ere desgaitasuna izango duela. Beldur horrek baldintzatu egin du emakume horien bizitza; autonomia eta pribatutasun gutxiago aitortu zaizkie, eta kontrolatu egin dituzte, justifikatu gabeko arrazoiengatik. Ezinbestekoa da desgaitasuna duten emakumeei dagozkien eskubideak ziurtatzea; hain zuzen, beren bizitzari buruzko erabakiak hartzeko duten eskubidea, sexualitaterako eskubidea eta amatasunerako eskubidea. Inork ezin izango du erabakirik hartu emakume haien osotasun pertsonalaren eremu intimoenari eragiten dioten alderdiei buruz, emakume horien baimen informatua ez badu.

8.8. Oraindik ere desgaitasuna duen emakume askori ukatzen zaio ugalketa-askatasunerako eskubidea, bere ongizatea aitzakia jarrita. Desgaitasuna duten emakume eta nerabe

asko behartzen dituzte antzutzera, sexu-organoa moztera eta abortatzera, haien onespenik gabe eta xedea zein den ulertu gabe. Halako jarduerak salatu eta zigortu egin behar dira, oinarrizko eskubideak urratzen dituztelako -besteak beste, gorputz-osotasunerako eskubidea eta ugalketa-osasunaren kontrola edukitzeko eskubidea-.

8.9. Lege-mailako babes-klausulak sortu behar dira ugalketarekin zerikusia duten gaietan baimen informatua emateko gai ez diren emakumeentzat. Bereziki, desgaitasuna duten emakumeei ez zaie inoiz antisorgailurik edo haurdunaldia eteteko metodorik haien borondatearen aurka eman behar. Haurdunaldia eteteko, gainera, kasuan kasuko onespen judiziala beharko da, baimena eskuratu ezin denean. Desgaitasuna duten emakumeek baimen informatua emateko eta jarduera mediko oro -antzutzera eta abortatzera zuzendutakoak barne- ulertzeko eskubidea izan behar dute.

8.10. Borondatearen aurkako antzutzeak eta behartutako abortuak ez dira inoiz egin behar. Desgaitasuna duen emakume bat baimena emateko gai ez bada, eta desgaitasuna duen neskaren edo emakumearen familiak edo ordezkariak eman behar badu baimena -adingabea delako edo lehendik desgaitasun judiziala duelako-, errespetatu egin behar dira neskaren edo emakumearen giza eskubideak eta borondatea. Medikuen erantzukizuna da, halaber, bermatzea desgaitasuna duen emakumeak edo neskak badakiela medikuaren interbentzioaren ondorioz antzu geldituko dela, eta badakiela horrek zer ondorio izango dituen bere etorkizunean.

8.11. Beharrezko neurriak hartu behar dira desgaitasuna duten eta borondatearen aurka antzutzeko arrisku handiena duten nesken eta emakumeen familiak zein profesionalak sentsibilizatzeko, informatzeko eta trebatzeko, batez ere osasun-arloko eta arlo juridikoko profesionalak. Neurri horiek ikerketa eta prozesu juridikoetan desgaitasuna duten nesken eta emakumeen iritzia entzungo dutela bermatzea izango dute helburu. Neurri horiek ezartzerakoan, elkarlanean aritu beharko litzateke desgaitasuna duten pertsonak ordezkatzen dituzten erakundeekin.

8.12. Botere publiko guztiek berrikusi behar dute borondatearen aurkako antzutzea eta behartutako abortua arautzen duen esparru juridikoa, eta «baimen informatua» eta «gaitasun juridikoa» landu behar dituzte, behar beste egokitzeko esparru juridiko hori, eta Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioak ezartzen dituen betebeharrak eta filosofia betetzeko. Konbentzioa sinatu zuten Estatu guztiak behartuta daude desgaitasuna duten pertsonen duintasuna eta osotasun pertsonala, etxearekiko errespetua eta familiarekiko errespetua eskubide urraezinak direla aitortzera zuzendutako erreforma juridikoak egitera.

8.13. Desgaitasuna duten emakumeen antzutzeari buruzko egoera zein den jakiteko, Estatu kideetan azterlanak egin daitezen bultzatu behar du Europar Batasunak, generoaren,

adinaren eta desgaitasun-motaren ikuspegiak kontuan hartzen direla, borondatearen aurkako antzutzeari eta terapeutikoari buruzko estatistika zehatzak lortu ahal izateko.

AMATASUNA

8.14. Programa egokiak garatu behar dira desgaitasuna duten emakumeak eta neskak haurdun geratzen direnean amatasunerako prestakuntza-laguntza izango dutela bermatzeko, eta, desgaitasuna duten amek seme-alabak zaintzeko laguntza behar dutenean, laguntza eta zerbitzu egokiak izango dituztela bermatzeko. Etorkizunean desgaitasuna izan dezakeelako jaio aurreko diagnostikoa egin beharra dagoenean, haurdun dagoen emakumeari arreta egokia emango zaiola ziurtatu behar da, errespetuari eta tratu egokiari dagozkion terminoetan, aukera-berdintasuna eta desgaitasunagatik ez diskriminatzea bultzatze aldera.

8.15. Desgaitasuna duten emakumeek eskubidea izan behar dute seme-alabak hazteko erantzukizuna beren gain hartzeko, tutoretza, kuradoretza, zaintza eta adopzio edo antzeko erakundeei dagokienez, legeria nazionalean antzeko kontzeptu horiek daudenean. Laguntza egokia emango zaie, eta, kasu guztietan, adingabearen interesak errespetatuko dira.

8.16. Beharrezkoa da jarrera diskriminatzaileak desagerraraztea eta desgaitasuna duten emakumeen aurkako diskriminazioari buruz -zehazki, amatasunari dagokionez- indarrean dagoen legedia aldatzea; batez ere, eskubide hauei dagokienez: laguntza bidezko ugalketarako aukera, zaintzarako eskubidea dibortzioetan, adopziorako eskubidea, abegi-familiarako eskubidea, gizartean dauden beste aitatasun- eta amatasun-modu batzuetarako eskubidea, eta hazi-jartze artifizialerako eskubidea. Gizarteak onartu eta errespetatu egin behar du desgaitasuna duten emakumeen amatasuna. Beharrezko neurriak hartu behar dira kontzientziazioari, informazioari eta prestakuntzari dagokienez, desgaitasuna duten nesken eta emakumeen familientzat zein haiekin lotura duten profesionalentzat.

8.17. Ugalketa-eskubideen barruan sartzen dira, besteak beste, haurdun egoteagatik emakumea lanetik ez botatzeko eskubidea eta ordaindutako amatasun-baja izateko eskubidea. Europako zenbait herrialdetan, aitatasunagatiko bajarako eskubidea ere aitortzen dute; izan ere, gerta liteke emakumeak, lehendabiziko asteetan, nahiz eta lanik ez egin, etxearen eta jaioberriaren ardura bere gain bakarrik ezin hartzea. Ardura hori, gainera, aitak eta amak daukate. Horrez gain, baimen horiek luzatu egin beharko lirateke jaioberriak desgaitasunen bat duenean; zehazki, erditze multipleari dagokion baimenaren parekoak izan beharko lukete.

8.18. Desgaitasuna duten emakumeek gizartean erronka gehiago dituztenez, amatasunagatiko baimen luzeagoa izateko eskubidea izan beharko lukete, hala nahi izanez gero, egoera berrira molda daitezen eta familia-bizitza ondo gara dezaten. Desgaitasuna duten emakumeek eskubidea izan behar dute, amatasunagatiko baimena duten bitartean, behar dituzten gizarte-laguntzak jasotzeko. Desgaitasuna duten emakume migratzaileek eskura izan behar dituzte eskubideak eta zerbitzuak Europar Batasunean, langile diren aldetik edota bikotekidearekin batera daudelako.

SEXU-ESPLOTAZIOA

8.19. Sexu-esplotazioa zilegi ez den jarduera bat da, pertsona bat -gehienetan, emakumea edo neska adingabea- indarkeriaz edo larderiaz sexu-egintzak edo sexu-jarduerak bere borondatearen aurka egitera behartzean datzana, trukean hirugarren batek etekin ekonomikoa lortzen duela. Desgaitasuna duten emakumeek eta neskek, beren egoera dela-eta, delitu horren biktima izateko arrisku handiagoa dute. Ziurtatu behar da desgaitasuna duten emakumeak eta neskak -bereziki, adimen-urritasuna edo laguntza-premia handia daukatenak- ez direla sexu-esplotazioaren biktima izango, hurbileko inguruneak zainduta eta haiek babesteko zaintzak eta prebentziozko neurriak ezarrita.

8.20. Desgaitasuna duten pertsonen eta emakumeen erakundeek emakume eta neska horien eskubideak defendatzearen alde egin behar dute lan; hau da, objektutzat hartzen diren eta fisikoki eta psikikoki tortura-mota horren eta tratu anker edo iragarrien biktima diren emakume eta neska horien alde. Horretarako, arrisku handien duten inguruneak sexu-esplotazioari buruz kontzientziatu behar dira, eta ezagutzen diren egoerak publikoki salatu.

8.21. Desgaitasunaren Europako Foroak eta bertako kide diren erakundeek gaitzetsi egiten dute desgaitasuna duten emakumeak sexu-edukia daukan publizitatean apeu gisa erabiltzea.

9. HEZKUNTZA

9. HEZKUNTZA

9.1. Desberdintasunaren, gizarte-bazterketaren eta pobreziaren aurkako borrokan, faktore erabakigarrienetako bat da hezkuntza. Desgaitasuna duten emakumeen eta nesken artean, oso handiak dira analfabetismo-tasak, bai eta eskola-porrotaren tasa, absentismo-tasa eta eskola-uzteari buruzko tasa ere. Horrek ondorio nabarmenak ditu gizarte-kohesioan, gizarteko parte-hartzean eta gizarte-jarreretan. Oinarrizko eskubideak eraginkortasunez betetze soila -besteak beste, pertsona guztientzat kalitatezko hezkuntza, inklusiboa eta doakoa izateko eskubidea- nahikoa da gizarte egituratuagoa, helduagoa, bidezkoagoa eta solidarioagoa lortzeko; hau da, gizarte-kohesioaren balioak lehenetsiko dituen gizartea erdiesteko, pertsona guztien parte-hartzea eragozten duten oztopoak lehenetsi beharrean. Ezinbestekoa da desgaitasuna duten nesken eta nerabeen hezkuntza inklusiboa sustatzea, hezkuntzaren alorrean gizarte-talde horrek bizi duen desabantaila-egoerari aurre egiteko; izan ere, oztopatu egiten du desgaitasuna duten emakumeak lan-arloan sartzea eta komunitatean integratzea.

9.2. Desgaitasuna duten nesken eta emakumeen hezkuntza inklusiboa paradigma hauek oinarri hartuta ulertu behar da: kalitatezko hezkuntza, aukera-berdintasuna eta bizitza osorako irakaskuntza. Horrez gain, desgaitasuna duten emakumeen hezkuntza iraunkorra ziurtatu behar da, norberaren autonomia, nortasunaren garapena –betiere, nork bere erabakiak hartzeko eskubidea eta zer bizimodu nahi duen zehazteko eskubidea duela– eta haien gizarteratzea bultzatzeko formula baita.

9.3. Desgaitasuna duten neskek eta emakumeek hezkuntzarako eskubideaz baliatzeko aukera izan behar dute, gainerako pertsonen baldintza berberetan. Eskubide hori garatzeko, erreferentzia-esparru lagungarria eta beharrezkoa da Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Konbentzioa, eta, bereziki, bertako 24. artikulua, maila guztietan hezkuntza inklusiboaren sistema aitortzen duena. Desgaitasuna duten neska ikasleen hezkuntza inklusiboa ziurtatu behar dela xedatzen du, printzipio hauek oinarri hartuta: normalizazioa, aukera-berdintasuna, diskriminaziorik eza, irisgarritasuna, laguntzak edukitzea, kalitatea eta parekotasuna, desgaitasunak eta generoak eragindako desberdintasunak konpentsatzeko.

9.4. Desgaitasuna duten neskek eta emakumeek hezkuntza-sistema orokorrera jotzeko aukera dutela bermatu behar da, desgaitasunean oinarrituta diskriminaziorik edo bereizketarik egin gabe, eta beharrezko laguntza dutela horretarako, hezkuntza inklusiboa doako hezkuntzan benetakoa izan dadin, hezkuntza-etapa guztietan. Horrenbestez, bermatu behar da hezkuntza-premiak garaiz identifikatzen direla, eta giza baliabideak, didaktikoak eta teknologikoak, besteak beste, eskura dituztela, pertsona horietako bakoitzak dituen premiei behar bezala aurre egin ahal izateko.

Desgaitasuna duten emakumeen zahartze aktiboa bultzatuko duten neurriak sustatu behar dira, desgaitasuna duten adineko emakumeen analfabetismo-tasak murrizte aldera, bai eta emakume-talde horretan informazioko eta komunikazioko teknologia berriak bizitza guztiko etengabeko prestakuntzan erabil ditzaten bultzatze aldera ere.

9.5. Hezkuntza-komunitate guztia sentsibilizatu behar da desgaitasuna duten emakumeen errealitateri, aniztasunari eta berez duten balioari buruz, bai eta bizi diren komunitateari egiten dioten ekarpenari buruz ere. Familiei eta irakasleei prestakuntza osagarria eman behar zaie desgaitasuna barne hartzen duen genero-ikuspegiari buruz, desgaitasuna duten nesken eta emakumeen irudi egokia errespetatze aldera. Prestakuntza horrek aitortu eta errespetatu egingo ditu emakume haien giza eskubideak, eta garrantzi berezia emango dio gizartean errotuta dauden estereotipo negatiboak ezabatzeari, estereotipo hori oztopo baita gainerako pertsonen baldintza berberetan garatzeko eta benetan gizarteratzeko.

9.6. Irakasleen hasierako eta etengabeko prestakuntzan, bai eta hezkuntza-orientazioaz arduratzen diren profesionalen prestakuntzan ere, kualifikazio eta espezializazio egokia edukitzea eta prestakuntza eguneratzea bultzatu behar da, beren jarduna desgaitasuna duten ikasleen premia berezietara egokitzeko, bereziki aintzat hartuta desgaitasuna duten nesken egoera; hau da, hezkuntzaren alorrean eskola-jazarpen eta sexu-abusu mota ororekin zerikusia duten egoerak.

9.7. Irakaskuntza- eta ikaskuntza-prozesuetan, ebaluazio-prozesuetan, material didaktikoak eta teknologia berriak aplikatzean, bai eta irakasleen prestakuntzako eta trebakuntzako edukietan ere, printzipio hauek hartu behar dira aintzat: diskriminazio-eza, irisgarritasun unibertsala eta guztiontzako diseinua.

9.8. Hezkuntza-sistemek ikasketa-plan malguak diseinatu behar dituzte, ikasle guztiei nork bere hezkuntza-ibilbidea egin ahal izango duela bermatzeko, bai eta desgaitasuna duten neskei ere. Hezkuntza-ibilbideak eskolaz kanpoko jarduerak eta lanbide-heziketakoak bildu behar ditu. Eskolaz kanpoko jarduerak diseinatzerakoan, ezinbestez hartu behar da kontuan genero-ikuspegia. Emakumeen lehentasunekin bat datozen jarduerak ere aintzat hartu behar dira.

9.9. Hezkuntza-programek desgaitasuna duten nesken eta emakumeen prestakuntza-premiak hartu behar dituzte kontuan; batez ere, bazterketa-egoeran egoteko arrisku handien dutenena -esaterako, dependentzia-maila handia dutenak, immigranteak, gutxiengo etnikoetakoak, landa-ingurunean bizi direnak, eta emakume heldu analfabetoak-. Halaber, hezkuntza-programek laguntza egokia dela zaindu behar dute, eta, halaber, neska nahiz emakume haiek eskola utzi ez dezaten eta eskola-porrota izan ez dezaten ahalegindu behar dute.

9.10. Urruneko prestakuntza eta teleprestakuntza oso aproposa izan daitezke desgaitasuna duten emakume askorentzat, familia-ardurekin edo lan-jarduerekin uztartzeko aukera izango bailukete. Desgaitasuna duten emakumeek informazio hori guztia eskura dutela ziurtatu behar da; horretarako, dibulgazio-kanpainak egin behar dira haien komunitate-etako inguruneetan.

9.11. Nazioarteko erakundeek, eta bereziki UNESCO erakundeak, generoaren eta desgaitasunaren ikuspegiak erantsi behar dituzte hezkuntza-programetan. Horrez gain, desgaitasuna duten nesken eta emakumeen eskolaratzea eta ingurune inklusiboetan hezkuntza-laguntza egokia ematea helburu duten programak garatu behar dituzte, eta hezkuntza-sistema osoan behar bezala bultzatzen dela zaindu behar dute.

9.12. Hezkuntzaren alorrean biztanleriari buruz egiten diren azterlan orokorretan, ezinbestez txertatu behar dira generoaren eta desgaitasunaren ikuspegiak, desgaitasuna duten neskek eta emakumeek Europar Batasunean eta Estatu kideetan duten egoerari buruzko datu fidagarriak lortzeko.

10. OSASUNA

10. OSASUNA

10.1. Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Konbentzioko 25. artikuluak xedatzen duenez, ahalik eta osasun-maila onena izateko eskubidea dute desgaitasuna duten emakumeek eta neskek; hori horrela, neurriak hartu behar dira, generoari eta desgaitasunari buruzko alderdiak kontuan izango dituzten osasun-zerbitzuak eskuragarri izan ditzaten ziurtatzeko, osasunarekin zerikusia duen errehabilitazioa barne.

10.2. Europar Batasunak aitortu du generoa osasunaren alderdi erabakigarri eta garrantzitsua dela, eta emakumeen eta gizonen artean desberdintasunak eragiten dituela osasun-arretan eta tratatzeko moduan. Hala ere, oraindik ez ditu aintzat hartu beste faktore diskriminatzaile batzuen ondorioz -desgaitasuna, adibidez- bazterketa-egoera bizitzeko arrisku handia duten herritarrak, eta, beraz, ez zaio behar bezala aurre egin desgaitasuna duten emakumeen eta nesken berariazko egoerari. Horri buruzko informazio gutxi dagoenez, ezinbestez txertatu beharko lirateke osasunaren alorrean egiten diren azterlanetan eta ikerketetan generoaren eta desgaitasunaren adierazleak, Europar Batasunean zein Estatu kideetan.

10.3. Osasun-alorreko jarduerari dagokionez, desgaitasuna duten emakumeak eta neskak babestu egin behar dira diskriminazioren aurrean; hots, haien giza eskubideak eta oinarrizko askatasunak errespetatzen ez dituzten estereotipo eta ohitura okerrek eragindako diskriminazioaren aurrean. Bestalde, ziurtatu behar da kalitatezko osasun-arreta behar bezala dutela eskuragarri, bai eta emakumeei orokorrean zuzendutako kanpainak eta programak eskura dituztela ere, emakumearen aurkako indarkeriari buruzkoak barne.

10.4. Neurriak hartu behar dira osasunaren alorreko profesionalek desgaitasuna duten emakumeak eta neskak artatzeko orduan prestakuntza egokia dutela bermatzeko; batez ere, arlo hauei dagokienez: sexu- eta ugalketa-eskubideak, haien osotasun fisiko eta mentalaren errespetua, eta haien duintasunaren eta autonomiaren errespetua. Horrez gain, balioa eman behar diote desgaitasuna duten pertsonek eskubideak dituztela aitortzen duen paradigma berriari. Arau etikoak eta jarduteko protokoloak bultzatu behar dira desgaitasuna duten emakumeen eta nesken osasun-arreta publikoan eta pribatuan, berariazko arretari dagokionez, eta batez ere arlo hauetan: ginekologia, obstetrizia, eta emakumearen aurkako indarkeria-kasuen arreta.

10.5. Tratamendu- eta interbentzio-mota guztietarako, baimen aske eta informatua eman behar du desgaitasuna duen emakumeak. Neurriak hartu behar dira desgaitasuna duten pertsonen kasuan borondatearen aurkako antzutzea, behartutako abortua eta esperimentu nahiz saiakuntza medikoak desagerrarazteko.

10.6. Desgaitasuna duten emakumeei eta neskei prestakuntza eta aholkularitza egokia eman behar zaie dagozkien sexu- eta ugalketa-eskubideei buruz, bai eta beren osotasun fisiko eta mentalarekiko errespetuari buruz ere. Horretarako, erraz ulertzeko moduko informazioa jaso behar da haientzat erabilerrazak diren formatutan. Desgaitasuna duten emakumeen erakundeek, desgaitasuna duten pertsonen erakundeek eta, oro har, emakumeen erakundeek gai horri buruzko mintegi bereziak eta eztabaida-taldeak egin daitezen bultzatu behar dute beren lan-programen bidez, eta desgaitasuna duten emakumeak hizlari izatera eta beste kide batzuen aholkulariak izatera bultzatu behar dituzte.

10.7. Sexu- eta ugalketa-osasunaren alorreko oinarrizko osasun-arreta, zerbitzuak eta programak, emakumearen aurkako indarkeria-kasuetarako osasun-arreta, bai eta osasun mentaleko zerbitzuak ere, desgaitasuna duten emakumeen eta nesken eskura jarri behar dira. Desgaitasuna duten emakumeek eta neskek osasunaren alor horietan osasun-arreta egokia dutela ziurtatzeko, funtsezkoak dira, besteak beste, honako hauek: ginekologia-azterketak egiteko esku-ohe hidraulikoak izatea eta mamografiak egiteko gurpildun aulki baten altuerara egokitzen diren gailuak edukitzea; kontsulta-gelan nahikoa leku izatea makuluekin edo gurpildun aulki batekin mugitzeko, bai eta janzteko eta eranzteko guneetan ere; osasun-laguntzaileak izatea mugitzeko arazoak dituzten emakumeei laguntzeko, medikuaren kontsultan laguntzeko zein zentroan dauden bitartean laguntzeko; zeinu-mintzairaren interpreteak izatea eta gor-itsu independenteentzako gida-interpreteak izatea, ahozko komunikaziorako laguntza-zerbitzuak izatea (begizta magnetikoa, frekuentzia-modulazioko ekipoak, soinu-mezuak transkribatzeko testu-panelak, azpitituluak edo komunikazio handigarriak irakurtzekoak); informazio ulergarria formatu eskuragarrietan eskaintzea; eta medikuaren kontsulta-denbora luzatzea.

OINARRIZKO OSASUN-ARRETA

10.8. Emakumeei zuzendutako osasun publikoari buruzko kanpaina orokorrek inklusiboak izan beharko lukete, bai eta eskuragarriak ere desgaitasunen bat dutenentzat. Halaber, osasun-zerbitzuak eta garaiz hautemateko eta esku hartzeko programak jarri behar dira abian, kasuaren arabera, emakumeen artean eragin gehien duten gaixotasun berri emateko eta desgaitasun-sortzaileak ager daitezen eragozteko, horien kopurua ahalik eta gehien murriztearren, gaixotasun arraroak barne; bereziki, landa-zonaldeetan eta urruti dauden zonaldeetan.

10.9. Desgaitasuna duten emakume gehienak adineko emakumeak direla aintzat hartuta, behar-beharrezkoa da haien premia eta eskaera zehatzak kontuan hartzea; batez ere, desgaitasunarekin eta adinarekin zerikusia dutenak, helburua baita oinarrizko osasun-arretako zerbitzuak eskuragarri izatea eta horietan ematen duten arreta egokiak direla bermatzea. Zerbitzu horiek haien etxebizitzetatik ahalik eta hurbilen eskaini behar dira -etxean bertan ere bai, zenbaitetan-, bai eta landa-eremuan bizi direnen kasuan ere.

Beharrezkoa da telematikaren bidez eskaintzen diren osasun-zerbitzuak haientzat ere erabat eskuragarri egotea.

SEXU- ETA UGALKETA-OSASUNA

10.10. Desgaitasuna duten emakumeek eta neskek oztopo sozialak eta egiturazkoak izaten dituzte askotan, sexu- eta ugalketa-osasunari buruzko zerbitzuak eskuragarri izateko. Desgaitasuna duten emakumeek eta neskek ginekologia- eta obstetrizia-zerbitzuak irisgarri dituztela bermatu behar da, eta profesionalek prestakuntza egokia dutela emakume eta neska horien sexu- eta ugalketa-eskubideen alorrean; halaber, irisgarritasun unibertsala bermatu behar zaie ingurune, ekipamendu eta behar dituzten zerbitzu guztietan.

10.11. Ginekologia-zerbitzuak, emakumeen gaixotasunak tratatzen dituen medikuntzaren alderdi bat denez, eskuragarri egon behar du desgaitasuna duten emakume eta neska guztientzat; beraz, baldintza berberetan eta inolako diskriminaziorik gabe izan behar dituzte eskuragarri familia-plangintza eta ginekologiako eta mamografiako aldizkako azterketak. Emakume eta neskek, adimen-urritasuna dutenean, desgaitasun psikosoziala, laguntza jasotzeko premia handia, edota gor-itsuak direnean, arreta-zerbitzu egokia jaso beharko dute minik gabeko hilekoa izateari eta antisorgailu egokien erabilerari dagokienez, haietako bakoitzaren ezaugarriak kontuan hartzen direla. Gai horiei guztiei dagokienez, artean instituzionalizatuta dauden emakumeen eta nesken jarraipen egokia egin beharko dute osasun-zerbitzuek bereizitako inguruneetan -esaterako, umezurtzegietan, eskola berezietan, eguneko zentroetan, enplegu-zentro berezietan, psikiatrikoetan, tutoretzapeko etxeetan, egoitzetan eta geriatrikoetan-.

10.12. GIBaren, HIESaren eta sexu bidez kutsatzen diren beste gaixotasun batzuen arriskuaz kontzientziatu behar dira desgaitasuna duten emakumeak eta neskak. Horretarako, funtsezkoa da emakume eta neska horiek antisorgailuen eta sexu-hezkuntzaren arloan heztea. GIBa edo HIESa duten emakumeak eta neskak desgaitasuna duten emakume eta neskatzat hartu behar dira; beraz, desgaitasuna duten gainerako emakumeek eta neskek dituzten eskubide eta pribilegio berberak izan behar dituzte. Haien eskaerak desgaitasuna duten pertsonen aldeko mugimenduaren interes-eremuen artean artatu behar dira.

10.13. Desgaitasuna duten emakumeei eta neskei modu egokian eskaini behar zaie obstetrizia-zerbitzua. Haurdunaldia, erditzea eta erditze-ondorena tratatzen dituen medikuntzaren alderdi bat denez, amatasunaren alderdi psikologikoak eta sozialak ere jaso behar ditu. Laguntza bidezko ugalketarako aukera ere izan behar dute. Halaber, haurdunaldian, erditzean eta jaio ondoko aldian, zerbitzu egokiak doan eta beharrezkoa denean eskura izango dituztela bermatu behar da, eta, horrez gain, haurdunaldian eta edos-

kialdian behar bezalako nutrizioa dutela. Desgaitasuna duten emakumeei zesarea egiten zaie gehienetan, baina erditze naturalera bideratu beharko lirateke, behar bezalako banakako arreta eskainita, baita osasun-inguruneen eta -ekipamenduen irisgarritasun fisikoa, eta komunikazio eta informazioarena.

10.4. Gainera, desgaitasuna duten emakumeei, haurdun daudenean, amatasunerako prestatzeko laguntza emango dieten programak garatu bera dira, eta desgaitasuna duten amek seme-alabak zaintzeko laguntza behar badute edo desgaitasuna duten seme-alaben amek laguntza behar badute, laguntza eta zerbitzu egokiak dituztela ziurtatu behar da.

10.15. Batzuetan, osasun-alorreko profesionalek aurreiritziak izaten dituzte eta beldur izaten dira desgaitasuna duten emakumeen haurdunaldiak izan ditzakeen ondorioengatik; batik bat, emakume horiek desgaitasun psikosoziala edo intelektuala dutenean. Horren guztiaren ondorioz, emakumea abortatzeko edo antzutzeko konbentzitzen saia litezke osasun-alorreko langileak. Profesionalek desgaitasuna duten emakumeei eta neskei ugalketa-eskubideei buruz aholku egokiak emango dizkietela ziurtatzeko, profesional horiek ondo prestatuta daudela bermatu behar da.

10.16. Gero eta ohikoagoa da emakumeei oro har jaio aurreko probak egitea, eta batzuetan lehenetsi egiten da, eta ez aukeran jarri, ugalketarako teknologiak erabiltzea. Desgaitasuna duten emakumeen kasuan, halako probak askoz gehiago egiten dira, baina ezinbestekoa da proba horiei uko egiteko eskubidea izatea. Fetuak desgaitasunen bat duela hautemanez gero, haurdunaldia amaitzeko eskubidea ere badu amak. Ugalketarako teknologien bidez desgaitasuna desagerrarazteari garrantzia ematea, halakoak bultzatzen eta erabiltzen diren gizarte-testuingurua aztertu gabe, desgaitasunean oinarrituta diskriminatzea da. Generoan edo desgaitasunean oinarrituta jarduera eugenesikoak edo diskriminatzaileak bultzatzen dituen lege-mailako neurri oro berrikusi egin behar da, edo bertan behera utzi.

EMAKUMEAREN AURKAKO INDARKERIA-KASUETARAKO OSASUN-LAGUNTZA

10.17. Osasun-zerbitzuek berebiziko garrantzia duen zeregina dute indarkeriaren biktima diren eta desgaitasuna duten emakumeei eta neskei laguntzen, gehienak jartzen baitira harremanetan zerbitzu horiekin noiz edo noiz. Gainera, tratu txarrak emakumeen osasunari ere eragiten dionez, gehiagotan joaten dira osasun-zerbitzuetara; batez ere, ondoko hauetara: oinarrizko laguntza, larrialdietarako zerbitzuak, obstetrizia eta ginekologia, eta osasun mentala. Emakumearen aurkako indarkeria-kasuen arretarako politikek bermatu behar dute desgaitasuna duten emakumeek eta neskek osasun-laguntza ego-

kia dutela prozesuaren fase guztietan (prebentzioa, diagnostiko goiztiarra eta biktimen sendabidea).

10.18. Jakin, badakigu desgaitasuna duten emakumeek eta neskek arrisku handiagoa dutela ingurune hurbileko pertsonek eragindako indarkeriaren edo sexu-abusuen biktima izateko, eta aukera gutxi izaten dituztela indarkeria-ekintza horiek salatzeko. Beraz, oinarrizko osasun-arretako profesionalek berebiziko garrantzia duen funtsezko zeregina dute diagnostiko goiztiarrean. Haiekin izaten dituzten ohiko kontsultetan, ondo begiratu behar dute zantzurik ba ote duten, eta, horrez gain, gizarte-zerbitzuen eta polizien esku informazio garrantzitsua utz dezakete; hain zuzen, gaixoen tratu txarrari buruzkoa edo indarkeriaren biktima izateko duten arriskuari buruzkoa.

10.19. Indarkeriaren biktima diren eta desgaitasuna duten emakume eta neskak oso gutxitan joaten dira larrialdiko osasun-zerbitzuetara. Izan ere, askotan, indarkeria eragiten dien pertsonarekiko dependentzia emozionala eta bizitzeko dependentzia izaten dute pertsona horiek; eta, horrez gain, joan-etorria beren kabuz egiteko oztopo gaindiezin asko izaten dituzte (fisikoak, komunikazio eta informaziokoak, eta garraiobideetakoak). Hala ere, edozein dela ere bertara joatearen arrazoia, ziurtatu behar da osasun-alorreko langileek indarkeria-sintomak dituzten hauteman ahal izateko jarduerak egingo dituztela, tratu txarren susmoei buruzko adierazleen bidez. Desgaitasuna duten emakumeen kasuan, adierazleetako batzuk izan daitezke laguntza ukatzea eta laguntza ez eskatzea desgaitasun-arrazoiengatik.

Larrialdi-zerbitzuetan desgaitasuna duen biktimari ematen zaion laguntzan, emakumea edo neska bestelako ingurune eskuragarri batera berehala eramateko leku egokiren bat aurreikusi behar da, desgaitasunagatik behar dituen laguntzak ziurtatzeko.

10.20. Osasun-alorreko profesionalek laguntza egokia emango dutela ziurtatzeko, ezinbestekoa da protokoloak ezartzea, jakin dezaten emakumearen aurkako indarkeria-kasuetan nolakoa izan behar duen osasun-jardunak, medikuaren kontsultan desgaitasuna duen emakumearen edo neskaren segurtasuna eta intimitatea bermatzeko. Protokolo horietan, gaixoak ahozko komunikaziorako behar dituen laguntza-zerbitzuak eskaini behar dira, osasun-alorreko langileei emandako informazioaren pribatutasuna ziurtatu behar da, eta testigantzari sinesgarritasuna eman behar zaio.

OSASUN MENTALA

10.21. Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) adierazitakoaren arabera, generoak nabarmen eragiten die osasun mentalari eta gaixotasun mentalei, baldintzatu egiten dituelako ahalmen diferentziala, gizonek nahiz emakumeek baldintza sozioekonomikoen gainean duten kontrola, gizarte-maila eta gizarte-egoera, jendeak tratatzen dituen modua, eta

osasun mentalarekiko sentikortasuna eta arrisku jakinak. Depresioa, antsietatea eta kexa somatikoak emakumeen artean dira ohikoen, eta desgaitasunen bat dutenei ere eragiten diete. Desgaitasuna duten emakumeek osasun mentaleko zerbitzuak eskuragarri dituztela eta han ematen zaien laguntza egokia dela ziurtatu behar da. Halaber, bereziki zaindu behar da irtenbidea ematen zaiela arazo pertsonalei; zehazki, honako hauen ondorioz sortzen direnei: borondatearen aurka antzutzea edo abortatzea, tratu txarrak, abusu-mota oro, seme-alabak zaintzeko gaitasuna zalantzan jartzea, eta haiek kendu edo seme-alabak uztea, besteak beste.

10.22. Bermatu behar da osasun mentaleko profesionalek prestakuntza egokia dutela desgaitasun psikosozial edo adimen-urritasuna duten emakumeen giza eskubideei eta oinarrizko askatasunei buruz; hots, haien duintasuna eta autonomia erabat errespetatuz jardungo direla laguntza ematean, Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Konbentzioak ezarritako printzipioei jarraiki.

10.23. Laguntza profesionala eskaini behar zaie desgaitasuna duten amei eta desgaitasuna duten seme-alaben amei, semeak edo alabak desgaitasuna duelako diagnostikoa jakin ondoren izan dezaketen larritasunari eta antsietateari aurre egiteko laguntza emozionala behar dutenean. Horrek guztiak arazoak eragin ditzake familian, familia-egitura aldatu egiten baita, senideren baten desgaitasuna dela-eta.

11. GAITZEA ETA BIRGAITZEA

11. GAITZEA ETA BIRGAITZEA

11.1. Europar Batasunak eta Estatu kideek bermatu behar dute desgaitasuna duten emakumeek eta neskek ahalik eta independentzia, gaitasuna fisiko, mental, sozial eta bokazional handiena lortuko dutela, maila horri eutsiko diotela, eta haien gizarteratzea eta bizitzako alderdi guztietan erabateko parte-hartzea izango dutela. Horretarako, gaitzeko eta birgaitzeko zerbitzu eta programa osoak ezarri behar dira; bereziki, osasunaren alorrean, enpleguaren alorrean, hezkuntzan eta gizarte-zerbitzuetan, sexuagatiko edo elkarri eragiten dioten beste faktore batzuengatiko diskriminaziorik egin gabe, bizitza osoan.

11.2. Zenbait faktoreren ondorioz, desgaitasuna duten emakumeek eta neskek gutxiago jotzen dute gaitzeko eta birgaitzeko zerbitzu eta programetara. Besteak beste, faktore hauen ondorioz: gizartean nagusi diren estereotipoak eta aurreiritziak (lan-arloan haien produkzioa txikiagoa delako ustea dela-eta, balio txikiagoa ematen zaie emakumeei), gizarte-rolak (etxean egon behar dute, etxeko lanak egiten, beste batzuk zaintzen eta ekonomikoki baloratzen ez diren lanak egiten), familiaren gehiegizko babesa eta autoestimu txikiagoa. Funtsezkoa da desgaitasuna duten emakumeek eta neskek gaitze- eta birgaitze-zerbitzuak beren komunitatean, doan eta nahi dutenean, eskuragarri dituztela ziurtatzea. Horretarako, administrazio publikoek eta gizarte-zerbitzuek pobreziaren faktorea lehenetsi behar dute baliabideak ematean.

11.3. Desgaitasuna duten emakumeei eta neskei bideratutako gaitze- eta birgaitze-zerbitzuek gorputz-hizkuntzako prestakuntza eta norberarengan konfiantza izateari buruzko prestakuntza ere jaso behar dute. Komeni da haien ordezkari diren erakundeekin lankidetzan aritzea, desgaitasuna duten emakumeentzat eta neskentzat gaitzeko edo birgaitzeko hainbat eredu sortzearren, haien heterogeneotasuna eta banakako premiak kontuan hartuta.

11.4. Gaitze- eta birgaitze-zerbitzuek ez dute diskriminaziorik egingo genero-arrazoiengatik, eta desgaitasuna duten emakume eta neska guztien eskura jarri behar dira, edozein dela ere haien adina. Zerbitzu horiek ez dira osasunaren alorrera mugatuko, ez eta eguneroko zaintzara edo etxeko lanetara ere; aitzitik, hezkuntzaren eta enpleguaren alorretan ere bultzatu behar da emakumeen gaikuntza eta birgaikuntza, eta berariazko jarduera positiboko neurriak hartu behar dira, programa horietan parte har dezaten.

11.5. Biztanle horien pobrezia-maila handiagoa dela kontuan izanik, laguntzarako gailuak eta teknologiak zentzuzko prezioan jarri behar dira desgaitasuna duten emakumeen eta nesken eskura. Haien diseinuak egokia izan behar du emakume eta neska horientzat, eta formatuak egokia, erabiltzeko arazorik izan ez dezaten.

11.6. Gaitzearen/birgaitzearen alorrean, profesionalen hasierako eta etengabeko prestakuntza bultzatu behar da, desgaitasuna duten nesken eta emakumeen berariazko laguntzari dagokionez. Prestakuntza horrek komunitatea oinarri duen birgaitzearen esparruan pertsona batek dituen premien eta gaitasunen diziplina anitzeko ebaluazioa hartuko du aintzakotzat, eta kontuan hartuko ditu sexua, desgaitasun-mota, egoera sozioekonomikoa eta elkarri eragiten dioten beste faktore batzuk. Prestakuntza hori etapa goiztiarretan eta komunitatetik ahalik eta gertuen eman behar da, landa-eremuko eta hiri-eremuko zonalde guztietan, eta desgaitasuna duten emakumeek ekarpenak egiten dituztela diziplina anitzeko taldeetan.

11.7. Desgaitasuna duten emakumeek eskubidea izan behar dute lagunduko dien profesionala gizonezkoa ala emakumezkoa izango den aukeratzeko.

12. LANA ETA ENPLEGUA

12. LANA ETA ENPLEGUA

12.1. Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Konbentzioko 27. artikuluak ezarritakoaren arabera, desgaitasuna duten emakumeek eskubidea izan behar dute askatasunez aukeratutako edo onartutako lan bat eginez bizimodua ateratzeko, lan-merkatu eta lan-ingurune ireki, inklusibo eta eskuragarrietan. Lanerako eskubidea babestu eta sustatu egin behar da, bai eta lan egitean desgaitasun bat hartu duten emakumeentzat ere; horretarako, neurri egokiak hartu behar dira, eta diskriminazioaren aurkako legedia onartu.

12.2. Kontuan izanik biztanle horien artean langabezia-tasa eta inaktibitate-tasa oso handiak direla, ekintzak garatu behar dira, zeharkakoak zein positiboak, desgaitasuna duten emakumeentzat, honako hauek bultzatzeko: prestakuntza, kontratazioa, lanean hastea, lan-jarraitutasuna, gaitasun berberekin denek ordainsari bera izatea, lanposturako egokitzeak, eta bizitza pribatuaren eta lanaren arteko oreka. Desgaitasuna duten emakumeek eskubidea izan behar dute, gainerako pertsonen baldintza berberetan, bidezko lan-baldintzak eta baldintza onuragarriak izateko -horretan sartzen dira aukera-berdintasuna eta soldata-berdintasuna lan berdinaren truke-, lan-baldintza seguruak eta osasungarriak izateko, jazarpenarekiko babesa izateko, eta kexak bideratzeko zerbitzuak izateko.

12.3. Desgaitasuna duten emakumeak lan-merkatuan sar daitezen bultzatu behar da, kalitatezko enplegu egonkorrera bideratutako diru-laguntzen bidez, eta gisa honetako helburuak lortzeko neurriak hartuz: haien ezagutza-maila handitzea, haien enplegurako aukerak hobetzea, lanerako joan-etorriak seguruak izatea, lanpostuak egokituak izatea, familia-bizitza eta lana uztartzeko proiektuak sortzea, aukera-berdintasunari buruzko kontzientziazio-proiektuak lantzea, gizarte-eragileak eta profesionalak trebatzea, eta gizarte-bazterketa pairatzeko arrisku handia duten emakumeak lan-merkatuan has daitezen eta gizartera daitezen askoz ere ahalegin handiagoa egitea.

12.4. Soldata eta lan-baldintza duineko enpleguak bilatzera bultzatu behar dira desgaitasuna duten emakumeak; horretarako laguntza eraginkorra eman behar zaie enplegua bilatu, eskuratu eta luzaroan izan dezaten, edota lan-merkatura itzul daitezen bitarteko eraginkorren bidez -esaterako, enpresa-ehunarekin harremanetan jartzeko eta jarraipena egiteko zerbitzuen bidez, eta desgaitasunean oinarritutako bidegabeko kaleratzeen aurka lege-milako babeserako zerbitzuen bidez-.

12.5. Kontzientziazio-kanpainak bultzatu behar dira enpresa-ehunean, enpresek desgaitasuna duten emakumeen inguruan dauzkaten jarrera negatiboak desagerrarazteko; horretarako, prestakuntza-programa erakargarriak egin behar dira enpresetan, eta emakume desgaituak kontratatzeagatik dauden diru-laguntzei eta hobariei buruzko kanpaina informatiboak zabaldu.

12.6. Kontuan izanik Europar Batasunean enplegurako eta gizarteratzeko mikrofinantziaziotresna berri bat sortu dela, neurriak har daitezen sustatu behar da autoenplegua bultzatzeko, norberaren enpresak sortzeko, kooperatibak garatzeko eta desgaitasuna duten emakume ekintzaileak sustatzeko. Desgaitasuna duten emakumeek eskubidea izan behar dute, gainerako pertsonen baldintza berberetan, laguntza ekonomikoa jasotzeko, eta ekintzaile kualifikatutzat hartu behar dira. Alde horretatik, ekintza positiboko neurriak sustatu behar dira desgaitasuna duten emakume ekintzaileentzat; esate baterako, kreditu bigunak, mikrokredituak eta itzuli beharrik gabeko diru-laguntzak.

12.7. Lanaren Nazioarteko Erakundearen (LANE) programetan eta antzeko beste batzuetan, desgaitasuna duten emakumeen egoerari buruzko proiektu espezifikoak txertatu behar dira Europarako, haien ordezkari diren erakundeekin lankidetza estuan arituta.

12.8. Ikertu egin behar dira desgaitasuna duten emakumeen gizarte- eta lan-egoera, lan-merkatuaren bilakaera eta emakumeek dituzten benetako aukerak, azaleratzen ari diren sektoreetan eta sektore lehiakorretan emakume horientzako enplegu-hobi berriak identifikatu ahal izateko.

12.9. Europar Batasuneko politikek desgaitasuna duten emakumeen enplegurako eskubidea sustatzeko modu eraginkorragoak sortzera bultzatu behar dituzte enpresaburuen elkarteak, sindikatuak eta gobernuz kanpoko erakundeak, bai eta lan-arloa eta bizitza pribatua uztartzeko aukera ematen duten neurriak hartzera ere. Sindikatuek desgaitasuna duten emakumeak gonbidatu behar dituzte negoziazio kolektiboetara, haiek ere beren eskubideak proposatzeko eta defendatzeko aukera izan dezaten, gainerakoekiko berdintasun-egoeran.

12.10. Neurri bereziak hartu behar dira desgaitasuna duten emakumeek Europako lan-merkatuan herrialde batetik bestera mugitzeko askatasuna izan dezaten, gainerako pertsonek bezala, Europar Batasunaren itunetan xedatutako mugitzeko askatasunaren printzipioari jarraiki.

12.11. Erkidegoan enplegua eta lanbide-heziketa sustatzeko egiten diren politika eta programa guztiek kontuan hartu behar dute desgaitasuna duten emakumeen egoera berezia, bai eta beste faktore diskriminatzaile batzuen elkarreraginaren ondorioz haiek bizi duten askotariko diskriminazioa ere; hain zuzen, faktore hauen ondorioz: adina, sexu-joera, landa-eremuan bizitzea, immigrazioa, gutxiengo etniko bateko kide izatea, genero-indarkeriaren biktima izatea, pobrezia-egoeran egoteko arriskuan egotea...

LANBIDE-HEZIKETA

12.12. Ohiko lan-merkatuari buruzko informazioa eta sektore publikoan zein pribatuan lan egiteko dauzkaten aukerei buruzko informazioa eskuragarri izan behar dute desgaitasuna duten gazteek eta emakumeek; horrez gain, gomendioak eta laguntza eman behar zaizkie, behar dutenean.

12.13. Desgaitasuna duten emakumeek kalitatezko prestakuntza jaso behar dute, lan-merkatuan dauden lan-aukerak eskuragarri izan ditzaten, arlo publikoan zein pribatuan, eta, halaber, prestakuntzarako berariazko aukerak izan behar dituzte bizitza osoan, etorkizunean beharrezkoak izango dituzten trebakuntza eta kualifikazioa izan ditzaten, erantzukizunari, konfiantza izateari eta gaitasunari dagokienez.

12.14. Berariazko prestakuntzaren bat behar izanez gero, desgaitasuna duten emakumeak ez dira, gainerakoen aldean, desabantaila-egoeran ipini behar. Ezinbestekoa da, halaber, prestakuntza-programa guztietan baldintza egokietan parte hartzeko aukera izatea; besteak beste, orientazio teknikoko eta bokazionaleko programa orokorretan, lanbide-zerbitzuetan, lanbide-heziketan eta etengabeko heziketan. Horrez gain, modu aktiboan sustatu behar emakume horiek prestakuntza horietan parte har dezaten.

12.15. Emakumeei zuzendutako lanbide-heziketako programak -teleprestakuntza barne- modu berezian zabaldu behar zaizkie desgaitasuna duten emakumeei, parte har dezaten, eta laguntza-zerbitzuak eskaini behar zaizkie, behar dituztenean.

12.16. Desgaitasuna duten eta lan-merkatuan sartu nahi duten emakumeei alfabetizazio digitala bermatu behar zaie, eta, modu osagarrian, finantzaketa eta kreditu bigunak eskaini behar zaizkie, alfabetizazio digitala eskuragarri izateko behar dituzten ekipamendu teknologikoak eta laguntza-produktuak eskuratu ahal izan ditzaten, bai eta konexio-modua izan dezaten ere. Gai horri dagokionez, laguntza berezia eman behar zaie bazterketa-egoeran egoteko arriskua duten kolektiboei (adineko emakumeak, landa-eremukoak, immigranteak, gutxiengo etnietako kideak, desgaitasunagatiko dependentzia handia dutenak...), lehentasuna izan behar baitute diru-laguntza horiek esleitzerakoan.

LANEKO BIZITZA ETA BIZITZA PRIBATUA UZTARTZEA

12.17. Europar Batasunak eta Estatu kideek hobetu egin behar dituzte desgaitasuna duten emakumeen laneko bizitza eta bizitza pribatua uztartzeko baldintzak, eta, horretarako, haien berariazko premiak oinarri dituzten neurri eraginkorrak ezarri behar dituzte. Helburu hori lortze aldera, hauek izan daitezke aukeretako batzuk: soldaten, kontratazio-prozeduren eta gizarte-segurantzari egiten zaizkion kotizazioen gardentasuna; lan-ordutegi malgua edo telelan partziala; desgaitasunak eragiten dituen kostuen oreka,

amatasunari eta laguntza-premia handiak dituzten beste pertsona batzuen zaintzari dagokionez; eta prezio egokiko eta kalitate oneko laguntza-zerbitzuak eskuragarri jartzea hainbat ordutegitan -esate baterako, haurtzaindegiak eta adineko pertsonentzako nahiz laguntza-premia handia duen edonorentzako laguntza-zerbitzuak-.

12.18. Gizarte-zerbitzu eskudunek neurri egokiak hartu behar dituzte desgaitasuna duten amei edo desgaitasuna duten seme-alaben amei enplegua bilatzen laguntzeko, eta enplegua egonkorra izan dadin laguntzeko; izan ere, beren kabuz hori lortzea zaila da haientzat, seme-alabak zaintzeak edo laguntza-premia handia duten pertsonak zaintzeak eragiten duen gainkargaren ondorioz, lan-merkatuaren baldintzen ondorioz, eta, horrez gain, haiek duten prestakuntza ez delako beti merkatuan dagoen beharrarekin bat etortzen.

12.19. Estatu kideek hobetu egin behar dute haurrak zaintzeko aukeren irisgarritasuna; finantza-laguntzaren bidez, batik bat. Bestalde, sendotu egin behar dituzte haurrak zaintzeko dauden egitura publikoak, enpresei pizgarriak emanez, beren instalazioetan halako egiturak jar ditzaten. Desgaitasuna duten emakumeek eta desgaitasuna duten seme-alaben amek lehentasuna izan behar dute zerbitzu horiek nori eskaini erabakitzerakoan.

12.20. Europar Batasuneko Estatu kideek ahalik eta haurtzaindegi gehien sustatzeko oinarrizko tresna modura erabili behar dira Egitura-funtsak -eta, bereziki, Europako Gizarte Funtsa-, baita adineko pertsonei eta laguntza-premia handia duten pertsonei laguntze aldera ahalik eta instalazio nahiz zerbitzu gehien sustatzeko ere. Halaber, antolakuntzako eta finantzaketako modalitate berriak sortu behar dira, publiko zein pribatuak, bai eta bitarteko berriak ere.

13. BIZI-MAILA EGOKIA ETA GIZARTE-BABESA

13. BIZI-MAILA EGOKIA ETA GIZARTE-BABESA

13.1. Desgaitasuna duten emakumeek pobrezia erlatiboko egoeran egoteko arrisku handiagoa dutenez -hau da, haien diru-sarrera txikiagoa izatea bizi diren herrialdeko batez besteko diru-sarreren % 61 baino (3)-, ezinbestekoa da gizarte- eta ekonomia-politiketan emakume horiek lehentasuna izatea; izan ere, orain arte apenas hartu da kontuan haien egoera, behar bezalako bizi-maila eta gizarte-babesa eraginkorra edukitzeko duten eskubidea bermatzeko. Elkarri lotuta dauden hainbat faktoreren ondorioz, desgaitasuna duten emakumeek gizarte-talde pobreenetako bat osatzen dute. Hauek dira, besteak beste, faktore horiek: haien lanbide-heziketa lehiakorra ez izatea, lan-arloan inaktibitate-tasa handia, lan-merkatuan hasteko zailtasuna, merkatuan ez dauden jardueretan aritzea, gizonen eta emakumeen soldaten arteko aldeak, familia-bizitza eta laneko bizitza uztartuta ez egoteak eragiten dituen oztopoak, emakumeen bizi-itxaropena luzeagoa izatea, eta, oro har, generoan eta desgaitasunean oinarritutako diskriminaziomodu anitzak.

13.2. Europan eta nazioetan pobreziari aurre egiteko ezartzen diren neurri politiko guztiek batera hartu behar dituzte kontuan generoaren eta desgaitasunaren ikuspegiak, eta bereziki nabarmendu behar dute oso garrantzitsua dela desgaitasuna duten emakumeak lan-merkatuan hastea, funtsezko faktorea baita haien pobreziaren eta gizarte-bazterketaren aurka borroka egiteko. Ekonomia- eta finantza-krisiaren garaian, desgaitasuna duten emakumeak, haien egoera dela-eta, lan prekarioetan aritzen dira, arrisku handiagoa dute enplegua galtzeko, eta gizarte-babesa txikiagoa dute. Horrenbestez, neurriak hartu behar dira nahikoa diru-sarrerak bermatzeko, emakume horiek behar bezalako bizi-maila izan dezaten; horrek barnean ditu elikadura, jantzia eta etxebizitza soziala, desgaitasunarekin zerikusia duten gastuez gain -esaterako, haurrak zaintzeak dakartzan zereginetarako norbait kontratatzea-.

13.3. Etxebizitza publikoari buruzko programetan, kontuan hartu behar da desgaitasunaren ikuspegia; ez bakarrik eraikitako ingurunearen eta hiri-ingurunearen irisgarritasunaren alderdia -esaterako, auzoa eta komunitateko zerbitzuak hurbil egotea, oinezkoentzako bideak jarrita-, baizik eta, horrez gain, bermatu behar da diru-sarrerarik ez duten eta desgaitasuna duten emakumeek, emakumearen aurkako indarkeriaren biktimek edo abandonatuta gelditzeko arriskua duten emakumeek lehentasuna dutela etxebizitza horiek jasotzerakoan. Desgaitasuna duten emakume askok ezin dutenez etxebizitza erosi, diru-laguntzak sustatu behar dira oztopoak kentzeko, eta alokatutako etxebizitze-

---

(3) Desgaitasuna duten gizonezkoak eta emakumezkoak Europan: biztanleria aktiboari buruzko inkestako ad hoc moduluaren estatista-azterketa eta errentari eta bizi-baldintzei buruzko Erkidegoko estatistikak (EU-SILC), Amaierako Txostena, Europako Batzordea; Enplegurako, Gizarte Gaietarako eta Aukera Berdintasunerako Zuzendaritza Nagusia (2007).

tan edo etxebizitza zaharretan egokitze-lanak egiteko. Bestalde, jabetza horizontalari buruzko legedian denontzako diren espazioetarako irisgarritasuna ziurtatzea derrigortu behar da.

13.4. Garatzen ari diren sektore estrategikoetan, desgaitasuna duten emakumeen enplegua sustatu eta bultzatu behar da, eta neurri zehatzak hartu behar dira hasierako eta etengabeko prestakuntza bultzatzeko, lan-merkatuko enplegu jakinetan aritzeko, ordutegiak malgutzeko, ordainsarien arteko berdintasuna lortzeko, eta hobari fiskalak emateko. Horrez gain, neurriak hartu behar dira gizarte-eskubideak erabiltzeko aukera izan dezaten -esaterako, haurdunaldian dagozkien eskubideak, amatasun-baimenerako eta edoskitzeko eskubidea-, pentsio-eskubideak eskura ditzaten, eta gizarte-segurantzan sar daitezen.

13.5. Ekonomia informalaren sektorea hautemateko eta «bizitzaren ekonomia» esaten zaionaren balioa kuantifikatzeko ekimenak gara daitezen sustatu behar da, generoaren ikuspegia propio erabilita. Europar Batasunak eta Estatu kideek gizarte-onura egokiak aurreikusi behar dituzte desgaitasuna duten senideak zaintzen dituzten emakumeentzat, desgaitasuna duten amentzat eta adineko emakumeentzat.

13.6. Aipamen berezia merezi dute laguntza-premia handiak dituzten senideen zaintzaile diren emakume desgaituek. Alde batetik, behar dituzten laguntzak eta bitartekoak eman behar zaizkie, baina, bestetik, eragotzi egin behar da familia- eta gizarte-inguruneak etxean geratu behar dutela pentsaraztea; izan ere, hala eginez gero, galdu egingo lukete komunitatean parte hartzeko eskubidea eta askatasunez hautatutako bizitza-proiektua garatzeko eskubidea, eta zaintzaile merke bihurtuko lirateke.

13.7. Desgaitasuna duten adineko emakumeek arrisku handiagoa dute pobreago izateko; bereziki, bizi diren Estatu kideko pentsio-sistemak bizitza laboralean izandako diru-sarrerak eta egindako kotizazioak soilik hartzen baditu oinarri. Pentsio-sistema horien ondorioz, laguntza-premia handiko seme-alabak edo senideak zaindu dituzten emakumeek eta lanik egin ezin izan duten emakumeek -desgaitasuna dutenak- desabantaila dute, bizitza laboralean diru-sarrera gutxi izan baitute. Horrenbestez, ezinbestekoa da behar bezalako gizarte-babesa eskaintzea senide gaixoak, adinekoak edo desgaitasuna duten pertsonen zaintzaz arduratzen diren emakumeei, bai eta pentsio txikia jaso eta desgaitasuna duten adineko emakumeei ere.

13.8. Desgaitasuna duten emakumeek, edozein dela ere haien adin-taldea, bikote-harremana utzi eta banandu ondoren, pobrezia-egoeran egoteko arrisku askoz ere handiagoa dute beren erreferentzia-taldeetakoek baino -desgaitasuna duten gizonezkoak eta emakumeak, orokorrean-; beste hainbeste gertatzen zaie desgaitasuna duten seme-alaben amei ere. Emakume horiek behar besteko laguntza ekonomikoa jaso beharko lukete, bizimodu duina izateko; izan ezkongabeak, ezkonduak edo beste edozein harreman-

mota izan. Prestazioak, laguntzak, zerbitzuak eta laguntza pertsonala, besteak beste, ez lirateke inoiz egoera zibilaren arabera jaso beharko. Gizarte-prestazioa jasotzeko eskubidea baldin badute, zuzenean onuradunei emango zaie.

13.9. Desgaitasuna duten emakumeek oso aukera gutxi dituzte finantza-krediduko zerbitzuak eskuratzeko, eta hori eragozpen handia da haien garapenerako eta independentzia ekonomikoa lortzeko. Desgaitasuna duten emakumeek eskubidea izango dute familia-prestazioak, banku-maileguak, hipotekak eta beste finantza-krediduko modalitate batzuk izateko, gainerako pertsonen baldintza berberetan. Desgaitasuna duten emakumeen egoera hobetzeko, ezinbestekoa da aurrezki-planak, kreditu bigunak eta orientazioko eta finantza-gaitasuneko programak bultzatzea.

13.10. Kontsumoari buruzko legedian aldaketak egin behar dira desgaitasuna duten pertsonen eskubideak errespetatuko direla bermatzeko, ondasunen eta zerbitzuen kontsumitzaileak diren aldetik, gainerako pertsonek dituzten baldintza berberetan. Ezinbestez ziurtatu behar da desgaitasuna duten emakumeek eskura dutela, gainerakoek bezala, ondasunei eta merkatuan dauden zerbitzuei buruzko informazioa; bereziki, beste gizarte-sektore batzuetakoek baino gehiago erabiltzen dituztenei buruzkoa.

13.11. Gizarte-elkarrizketa egituratua egin behar da, desgaitasuna duten emakumeek esperientziak elkarren artean trukatzeko eta pobrezia-egoerei aurre egiten laguntzeko. Horretarako, tokiko, nazioko eta Europako jardunbide egokienen adibide zehatzak ezagutarazi behar dira. Pobreziaren aurkako Europako Plataformak kontuan hartu behar du desgaitasuna duten emakumeen pobrezia-egoera, eta egiten dituzten programetan eta neurrietan aintzat hartu behar dituzte.

13.12. Europar Batasunak eta Estatu kideek, urtero egiten dituzten txostenetan, eta babesari eta gizarteari buruzko baterako txostenean, generoaren eta desgaitasunaren arabera sistematikoki bereizi behar dituzte informazioa eta datuak.

14. AHALDUNTZEA ETA LIDERGOA

14. AHALDUNTZEA ETA LIDERGOA

14.1. Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Konbentzioko 29. artikuluan aitortutakoaren arabera, desgaitasuna duten pertsonen eskubide politikoak bermatu behar dira, bai eta eskubide horiez baliatzeko aukera ere, gainerako pertsonen baldintza berberetan. Desgaitasuna duten emakumeen kasuan, zaindu behar da oinarrizko eskubide hori ez dela urratzen, eta ziurtatu behar da bizitza politikoan eta publikoan benetan eta eraginkortasunez parte hartzen dutela, eta botoa emateko eskubidea eta hautatua izateko aukera dutela.

14.2. Informaziora jotzeko eskubidea gizartea osatzen dugun pertsona guztiok daukagun eskubide demokratiko bat da. Desgaitasuna duten emakumeek behar duten eta nahi duten informazio guztia izan behar dute eskuragarri, dagozkien legezko eskubideak, politikoak eta giza eskubideak erabili ahal izan ditzaten. Horretarako, ezinbestekoa da prozesu eta erakunde politikoen gardentasuna.

14.3. Desgaitasuna duten emakumeak eta neskak giza eskubideen inguruko mugimenduetatik at geratzen dira oraindik ere. Europar Batasunak eta Estatu kideek giza eskubideen itunei buruz egiten dituzten aldizkako txostenetan, ziurtatu behar da ofizioz eransten dela desgaitasuna duten emakumeei eta neskei buruzko informazioa, eskubide guztiei buruzkoa, bai eta honako hauei buruzkoa ere: egungo egitatezko egoera eta zuzenbide-egoera, haien egoera hobetze aldera hartutako neurriak, eta izan dituzten azaro eta oztopoak, batez ere landa-eremukoak. Hori bera egin behar dute giza eskubideen defentsaren alde aritzen diren erakunde guztiek, Europakoek nahiz nazioetakoak, bai eta desgaitasuna duten pertsonen eta haien familien ordezkari diren elkarteek, emakumeen elkarteek eta desgaitasuna duten emakumeen ordezkari diren elkarteek ere.

14.4. Desgaitasuna duten emakumeen autodefentsa aktiboa sustatu behar da haiek laguntzea helburu duten programa orokorretan, eta informazio egokia eskaini behar zaie dagozkien eskubideei buruz eta eskubide horiek eskatzeko dauden bitartekoei buruz. Halaber, sare sozialak ezartzea bultzatu behar da, beren artean lagun daitezen eta elkarri laguntza juridikoa eman diezaioten.

14.5. Europar Batasuneko nahiz Estatu kideetako egiturek, programek, ekintzek eta ekimenek ahalduntzen lagundu behar diete desgaitasuna duten emakumeei, eta aukera gehiago eman behar dizkiete gizartean parte aktiboa izan dezaten. Indartu egin behar dira emakumearen egoera hobetzea helburu duten erakundeak, Europakoak zein nazioetakoak, eta desgaitasuna duten emakumeek parte hartu beharko lukete haietan. Halaber, ziurtatu behar da horien parte hartzeko eta kontsultako mekanismoetan ordezkaritza egokia dutela desgaitasuna duten emakumeek; batez ere, zuzenean eragiten dieten gaietan.

14.6. Desgaitasuna duten emakumeen iritziak ezagutarazteko mekanismoak eta egiturak ezar daitezen bermatu behar da, bai eta politikaren alorrean eragile gisa parte hartzeko aukera izan dezaten ere, desgaitasuna duten elkarteetan zein emakumeen elkarteetan.

14.7. Desgaitasuna duten Europako emakumeek informazioa eta materiala sortu eta hedatu behar dituzte, Erkidegoan eta nazioetan erabakiak hartzeaz arduratzen direnak kontzientziatzeko; hain zuzen, desgaitasuna duten emakumeen eta nesken aurkako askotariko diskriminazioaren arriskuari buruz. Pertsona horien artean, orokorrean desgaitasuna duten pertsonekin zerikusia duten politikez arduratzen direnek izango dute lehentasuna, bai eta gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaz arduratzen direnek ere.

AHALDUNTZEA

14.8. Desgaitasuna duten emakumeak ahalduntzeak zera adierazten du: euren buruarengan konfiantza handiagoa izatea, eta euren bizitzari eragiten dioten alderdi guztietan erabakitzeko botere eta ahalmen handiagoak izatea. Horrenbestez, desgaitasuna duten emakumeak ahalduntzea da une honetan lehenbailehen lortu beharrekoa. Izan ere, ez gizarteak, ez botere publikoek, ez emakumeen mugimenduek, ez eta desgaitasuna duten emakumeen mugimenduek ere, ez dituzte aitortzen benetan dituzten premiak eta interesak. Desgaitasuna duten emakumeek zuzentzen eta gidatzen dituzten erakundeak, sareak eta taldeak sendotu eta lagundu egin behar dira, haiek berek dituzten interesak emakume horiek definitzen dituzten moduan defenda ditzaten, erakunde mistoetan edo berezietan presente egoteko aukerari kalterik egin gabe.

14.9. Tutoretzako programa bereziak abian jarri eta bultzatu egin behar dira Europako herrialdeetako toki-eremuetan eta eskualdeetan, desgaitasuna duten pertsonen mugimenduetan parte hartzen duten emakumeek elkarri lagundu diezaioten garapenaren eta ahalduntzearen etapa guztietan.

14.10. Desgaitasuna duten emakumeek gero eta ageriago egon behar dute desgaitasunaren gaiez, gizarte-gaiez, politikaz eta orokorrean gizarteko gaiez arduratzen diren erakundeetan. Helburu horretarako berariaz diseinatutako proiektuak jarri behar dira abian, eta finantza-neurriak ezarri behar dira haien parte-hartzea ziurtatzeko. Interes publikoko gaietan parte hartzen badute, haiek dituzten premiei aurre egiteko erabakiekin zerikusia duten neurri eraginkorrak ezarriko dira, eta lagungarria izango da benetako gizarte inklusiboa lortzeko.

14.11. Desgaitasunaren Europako Foroak eta bertako kide diren erakundeek ildo politiko garrantzitsu hauxe hartu beharko lukete: emakumeen eta gizonen ordezkaritza parekidea ezarri beharko lukete erabakiak hartzeko antolaketa-egituretan, baita erakundearen zuzendaritza-postuetarako eta ordezkaritza-postuetarako hautagaiak izendatzean ere.

14.12. Desgaitasuna duten emakumeak parte-hartze aktiboa izan behar dute desgaitasuna duten emakumeen erakundeetan zein emakumeen erakundeetan. Desgaitasuna duten pertsonen nazioetako eta Europako erakundeek desgaitasuna duten emakumeen batzordeak edo desgaitasuna duten emakumeen talde independenteak sor daitezen bultzatu behar dute. Desgaitasunaren Europako Foroak emakumeen batzorde, talde eta sareak sortzera bultzatu behar ditu bere kideak.

14.13. Desgaitasuna duten emakumeek presente egon beharko lukete nazioetako ordezkaritzetan, emakumearekin zein desgaitasuna duten pertsonekin zerikusia duten gaiei buruz nazioartean antolatzen diren bileretan, konferentzietan eta batzordeetan parte har dezaten. Desgaitasuna duten emakumeek orokorrean parte har dezaten bultzatu behar da, eta ez bakarrik programan haiekin bereziki zerikusia duten gaiak lantzen direnean.

14.14. Desgaitasuna duten emakumeek parte hartu behar dute gobernuko eta gobernuz kanpoko, nazioetako, Europako eta nazioarteko emakumeen erakundeetan eta elkarteetan. Bestalde, emakumeen mugimendu orokorrean desgaitasuna duten emakumeekin zerikusia duten gaiak landu behar dira, ekintza-planak gauzatuta.

14.15. Europan, denon intereseko gaietan, desgaitasuna duten emakumeak lankidetza estuan arituko dira, Desgaitasunaren Europako Foroaren esparruan, Emakumeen Europako Lobbyarekin. Horrez gain, ezinbestekoa da maila nazionalean zein nazioartean lankidetza sustatzea.

LIDERGOA

14.16. Lidergorako trebatzeak lagundu egin behar die desgaitasuna duten neskei eta emakumeei beren autoestimua hobetzen, autonomia sustatzen eta erantzukizuneko postuak lor ditzaten, beren komunitateetan benetako kide izateko. Halaber, gizarteko maila guztietan eta herrialde guztietan botere-banaketan -bereziki, interes publikoko gaietan- parte har dezaten bultzatzeko lagungarria izan behar du.

14.17. Liderrak eta zuzendariak trebatzea helburu duten nazioetako erakundeen prestakuntza-programetan, desgaitasuna duten emakumeek parte har dezaten bultzatu behar da. Halaber, desgaitasuna duten neskentzat eta emakumeentzat propio diseinatu behar dira programak, eta emakumeentzat dauden prestakuntza-programen artean erantsi.

14.18. Liderrak prestatzeko mintegiak, hezkuntza-programak, eta kooperatibak eta ordaindutako jarduerak sortzea helburu duten lan-prestakuntzarako programak udalerrietan eta landa-eremuko zonaldeetan antolatu behar dira, desgaitasuna duten emakumeak komunitatean bizi duten egoeraz kontzientziatzeko, eta haien parte-hartze aktiboa sustatzeko.

14.19. Europako eskualdeetako erakundeek eta NBEko egiturek lidergorako prestatzen laguntu behar diete desgaitasuna duten emakumeei, LANE, FAO eta Unesco erakundeek curriculum eredugarriak eginez -lidergo-maila desberdinetan erabili ahal izateko herrialde guztietan- eta lankidetza teknikoa eskainiz. Ahal den guztia egin behar da desgaitasuna duten emakumeak prestatzaile izan daitezen sustatzeko.

15. KULTURA, KIROLA ETA AISIA

15. KULTURA, KIROLA ETA AISIA

15.1. Ezinbestez bermatu behar da desgaitasuna duten emakumeek eta neskek autonomiaz gozatzeko aukera dutela eta benetan parte hartuko dutela kulturaren, kirolaren eta aisiaren alderdi guztietan, gainerako pertsonek dituzten baldintza berberetan; bereziki beren erreferentziazko herritarren baldintza berdinetan (desgaitasuna duten gizonezkoak eta emakumeak, oro har).

15.2. Generoaren ikuspegia behar bezala txertatuta egon dadin kultura, kirola eta aisia eskuragarri izateko neurrietan, plangintzetan, proiektuetan, programetan eta auditorietan, ziurtatu behar da kasuan kasuko erakundeetan parte hartzen dutela bai desgaitasuna duten emakumeek, bai haiek ordezkatzen dituzten erakundeek -ahal dela, aholkulari edo aditu gisa-, haiek zaindu dezaten alor horiekin zerikusi zuzena duten inguruneen, ondasunen eta zerbitzuen diseinuan kontuan hartzen direla desgaitasuna duten emakumezkoen premia eta eskari zehatzak.

15.3. Kontuan izanik desgaitasuna duten emakumezkoek diru-sarrera txikiagoak dituztela, lan-bizitzan duten parte-hartzea txikia dela, beren kabuz bizitzeko zailtasunak dituztela, auto pribatua oso gutxik dutela, eta beren egoera berean dauden gizonezkoak baino urte gehiagoan bizi ohi direla, haien etxebizitzetatik hurbil egon beharko lukete kultura, kirola eta aisia eskaintzen dituzten inguruneak, bai eta eguneko zentroak, adinekoen egoitzak eta geriatrikoak ere, besteak beste.

KULTURA

15.4. Desgaitasuna duten emakumeei eta neskei kultura-jardueretan erabat integratzeko eta horietan parte hartzeko aukera bermatu behar zaie, gainerako pertsonen baldintza berberetan, eta zaindu egin behar da ahalmen sortzaile, artistiko eta intelektuala garatzeko eta erabiltzeko aukera dutela, bai haien mesederako, bai gizartearen onerako.

15.5. Garapen artistiko orekatua sustatu behar da, beharrezko neurriak hartuta desgaitasuna duten emakumeen eta nesken arte-sormena bultzatzeko, eta ekintza zehatzak jarri behar dira abian, aukera izan dezaten, hala nahi badute, artearen edozein adarretan artista profesionalak izateko.

15.6. Kultura-eskaintzaren barruan, ezinbestekoa da emakumeen eta nesken berariazko intereseko produktuak ere eskaintzea, eta beharrezko neurriak ezarri behar dira emakumeentzako berariazko eskaintza hori desgaitasuna dutenentzat ere eskuragarri egon dadin.

15.7. Desgaitasuna duten emakumeei eta neskei beren sormena garatzeko aukera ematen dieten kultura-proiektuak sustatu behar dira. Desgaitasuna duten emakumeek eta neskek eskubidea izango dute, gainerako pertsonen baldintza berberetan, berariazko kultura- eta hizkuntza-identitatea aitortzeko eta bultzatzeko; zeinu-mintzaira eta gorren kultura barne.

KIROLA

15.8. Egiaztatuta dago desgaitasuna duten emakumeek eta neskek arazoak dituztela, erreferentziazko haien berdinen aldean, kirola egiteko. Ezinbestez ziurtatu behar da desgaitasuna duten neskak eta nerabeak kirol-jardueran integratuta daudela, horietan jarraitzeko aukera dutela, eta kirol-jardueran parte har dezaten bultzatzen dela, eskola-kirolean eta oinarrizko kirolean, banaka zein taldean. Ezinbestekoa da, halaber, emakumezkoen eliteko kirola bultzatzea, lehiaketa paraolinpiarretarako prestatzeko bekak emanez.

AISIA ETA JOLASA

15.9. Desgaitasuna duten emakumeek eta neskek aukera berberak izan behar dituzte jolas-, kirol- eta aisia-ekintzetan parte hartzeko, orokorrak izan zein desgaitasuna duten pertsonentzat propio izan, bai eta jarduera horietarako dauden instalazioetara sartzeko ere. Mota horretako ekintzak antolatzen dituzten pertsonek edo instalazio horiez arduratzen direnek egoera horren jakitun izan behar dute, eta bermatu behar dute desgaitasuna duten emakumeek eta neskek eskuragarri dauzkatela horiek guztiak, bai eta eskolaren alorrean ere.

15.10. Azkenik, kontuan izan behar da kultura-inguruneak eta kultura-eskaintzak eskuragarri egotea ezinbestekoa dela; bereziki, haurrentzat sortu direnak.

16. ELKARRERAGINA, GENEROA ETA DESGAITASUNA

16. ELKARRERAGINA, GENEROA ETA DESGAITASUNA

16.1. Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Konbentzioko 6. artikuluan adierazitakoaren arabera, desgaitasuna duten emakumeek eta neskek era askotako diskriminazioa jasaten dute. Horri dagokionez, neurriak hartu behar dira, giza eskubideez eta oinarrizko askatasunez erabat baliatzeko aukera izango dutela ziurtatzeko, gainerako pertsonen baldintza berberetan, bai eta emakumeak eta neskak osotasunean garatzeko, aurrera egiteko eta indartzeko neurriak ere.

16.2. Kontuan hatu behar da hainbat diskriminazio-kategoria daudela, gizartean eta kulturan eratuak -horietako batzuk, hauen ondorioz: egoera ekonomikoa, arraza, jatorri etnikoa, gizarte-maila, adina, sexu-joera, nazionalitatea, erlijioa eta kultura-. Aztertu egin behar da kategoria horiek nola eragiten dioten elkarri maila askotan, eta, maiz, aldi berean. Horren guztiaren ondorioz, desberdintasun sozial sistematikoa sortu da. Faktore horiek bat egiten dute -hori da «elkarreragin» kontzeptuaren esanahia- desgaitasuna duten emakumeen eta nesken kasuan, eta eragin biderkatzailea sortzen da horrela, diskriminazioa areagotzen duena. Pertsonek beren nortasuna eratzeko duten modua dago diskriminazio horren jatorrian; izan ere, ez du onartzen desgaitasuna duten emakumeen artean dagoen aniztasuna, eta sozializazio-eremu guztietan homogeneizatzeko joera du, beren errealitatea ikuspegi baztertzailetik ulertuta. Funtsezkoa da hizkuntza bat bera, argia eta zehatza erabil dadin bultzatzea, desgaitasuna duten emakumeen eta nesken diskriminazioan elkarreragina aitortzen lagunduko duena.

16.3. Desgaitasuna duten emakumeek eta neskek berek jabetu behar dute bizi duten askotariko diskriminazioaz, eta beharrezko bitartekoak eta baliabideak eman behar zaizkie, bai eta laguntza-zerbitzu egokiak ere desgaitasunaren, adinaren eta diskriminazioa eragin zuen egoeraren arabera, dagozkien eskubideak erabil ditzaten. Txikitan hasi behar dute kontzientziatzen, ezkutuan gera daitezen eta kalean utz ditzaten eragozteko, bai eta zabarkeria eta bereizketa eragozteko ere. Eragiten dieten gaiei buruzko iritzia aske adierazteko duten eskubidea izan behar du oinarri kontzientziazio horrek, eta iritzi hori aintzat hartuko da, haien adinaren eta heldutasunaren arabera.

16.4. Desgaitasuna duten emakumeen eta nesken lidergorako trebakuntza sustatu behar da, eta horretan inbertitu, batez ere beste faktore diskriminatzaile batzuk bateratzearen ondorioz bazterketa-arrisku handiko egoeran daudenen artean, dagokien botere-kuota benetan eskuragarri izan dezaten eta ahalduntzea lor dezaten, hiritartasunez erabat gozatzeko.

16.5. Desgaitasuna duten emakumeei eta neskei buruzko estereotipo okerren aurka borrokatu behar da, eta, horretarako, komunikabideek kanpainak egin behar dira, gizartean haiei buruz dagoen irudi okerra ezabatzeko eta kultura publiko egokia eratzen lagun-

tzeko. Haien giza eskubideen eta oinarrizko askatasunen errespetua izan behar dute oinarri kanpaina horiek. Hezkuntza-komunitateak zaindu egin behar du eskolek aktiboki borroka egin dezaten askotariko arrazoiengatiko diskriminazioaren aurka (sexua, desgaitasuna, arraza, etnia, erlijioa…), eta giza aniztasunak gizarteari egiten dion ekarpena eta horren balioa aitor dezaten.

16.6. Generoak eta desgaitasunak eragiten dituzten desberdintasunei dagokienez, elkarreraginezko ikuspegia ezarri behar da politika publikoetan, eta horiek hala emakumeentzat nola desgaitasuna duten pertsonentzat izan behar dute. Politika horiek inklusiboagoak izan behar dute, eta modu berezian erreparatu behar diote aniztasunari; hala, desgaitasuna duten emakumeen eta nesken gizarteratzea eragozten duten oztopoak ezaba daitezen sustatu behar dute.

16.7. Europar Batasunak eta Estatu kideek lagundu egin behar diete gizarte-bazterketa arrisku handian dauden eta desgaitasuna duten emakumeei, politika aktiboen sistema eraginkor baten bidez eta prestakuntza-neurri egokien bidez, ahalik eta lasterren egokitzeko lan-merkatuaren beharretara eta haien pobreziaren aurka borrokatzeko, enplegua sortuz eta gizarte-babeseko sistemak sendotuz.

16.8. Desgaitasuna duten eta askotariko diskriminazioari aurre egin behar dioten emakumeei eta neskei buruzko azterlanak egin daitezen bultzatu behar da. Azterlan horietan, kontuan hartu behar da desgaitasuna duten emakumeen berariazko egoera; bereizi egin behar dituzte hainbat adinetakoak, hainbat sexu-joeratakoak, landa-eremuko zonaldeetakoak, emakume immigranteak, gutxiengo etnikoetakoak, laguntza-premia handia dutenak, genero-indarkeriaren biktima direnak, eta pobrezia-arriskuan daudenak.

16.9. Beharrezkoa denez desgaitasuna duten emakumeetan eta nesketan elkarreragina aztertzea eta definitzea, diskriminazio anitzak agerian geratuko direla bermatuta, desgaitasuna duten emakumeei eta neskei buruzko datuak bereizterakoan, diskriminazio-adierazle nagusiak eta haien eragin esponentziala hartu behar dira kontuan. Desberdintasunei buruzko teoria eta ondorio gehiago behar dira fenomeno hori giza eskubideen esparruko eragileek hobeto uler dezaten.

16.10. Europako eta nazioetako legediek agerian utzi behar dute desgaitasuna duten emakumeek eta neskek bizi izan duten askotariko diskriminazioa, eta aurre egin behar diote horri, irtenbide egokiak eskainiz eta babes eraginkorra bermatuz.

ADINEKO EMAKUMEAK

16.11. Zahartzea bilakaera-prozesu bat da, desgaitasunarekin lotura zuzena duena, eta sexuen arteko behetik gorako desoreka eragiten du, emakumezkoak urte gehiagoan bizi direlako. Horrenbestez, ezinbestekoa da desgaitasuna duten adineko emakumeen premiei eta eskaerei bereziki erreparatzea, zer iritzi duten entzunda eta haiek dituzten ikuspuntuak ezarrita, eskubideak dituzten subjektuak baitira, eta ez eskubideen objektu.

16.12. Generoak eta adinak, desgaitasunarekin batera, kalteak eragiten dizkie emakumeei lanmerkatuan hasteari eta bertan jarraitzeari dagokienez, eta, beraz, lanbide-karreran gora egiteko aukera gutxiago izaten dituzte, mugatu egiten baitzaie gora egiteko aukera. Zuzendaritza-lanetan aritzen direnek jarrera negatiboak dituztenez emakumezkoen zahartzearekiko, lan-bizitza laburragoa izaten dute desgaitasuna duten emakumeek edo desgaitasuna duten pertsonak zaintzeaz arduratzen diren emakumeek, eta zuzendaritza-taldeek ez dute haien lanbide-esperientzia kontuan hartzen. Europar Batasunak eta Estatu kideek ekintza positiboak bultzatu behar dituzte desgaitasuna duten emakumeak edo 45 urte baino gehiago dituzten zaintzaileak kontratatzeko, lan egiten jarraitzeko eta sustatzeko. Horretarako, zerga-pizgarriak eman behar dizkiete enpresei, edo lehentasun-irizpidea aplikatu behar dute administrazio publikoetan.

16.13. Garrantzitsua da hirugarren adinari buruzko gizarte-politikek dependentziaren, desgaitasunaren eta zahartzearen ondorioak kontuan hartzea, eta bereziki generoaren ikuspegia aintzat hartzea, desberdintasuna eragiten duen faktore nabarmena baita. Desgaitasuna duten adineko emakumeek laguntza egoki jaso behar dute bizitzaren alor guztietan, osasunarekin eta zaintza pertsonalarekin zerikusia duten alderdiez gain, eta non bizi eta norekin bizi nahi duten aukeratu ahal izan behar dute. Halaber, kultura-, kirol- eta jolas-jarduerak eskaini behar zaizkie, komunitatean integra daitezen.

16.14. Kontuan izanik desgaitasuna duten emakumeek eta laguntza orokorrak behar dituzten pertsonen amek bete duten rol garrantzitsuenetako bat senideak eta bikotekideak zaintzea dela, ezinbestekoa da adinean aurrera egiten dutenean zaintza-zerbitzuak eskaintzea haien kargu egiten direnentzat.

16.15. Funtzio berriak garatu behar dira desgaitasuna duten emakumeentzat, sormenari, pertsona gisa hazteari eta hautatzeari dagokienez. Izan ere, bizi-itxaropen luzeagoa dute gizonezkoen aldean, eta, ondorioz, aukera gehiago dauzkate hirugarren adinera iristeko eta adin horretan urte gehiago irauteko. Zahartze aktiboari buruzko politiketan, kontuan hartu behar da egoera hori, eta desgaitasuna duten emakumeei ikasketa berritzaileak eta baliagarriak eskaini behar zaizkie; esate baterako, alfabetizazio digitala eta komunitateen inguruneetan autonomia pertsonala bultzatzen laguntzen duten teknologiak.

16.16. Sare sozialak zahartzaroan garrantzitsuak direnez, eta emakumezkoen bizi-itxaropena luzeagoa denez, laguntza-eredu egokiak bermatu behar dira desgaitasuna duten adineko emakumezkoentzat, bikotekideen eta senideen galerak eragiten duen egoerari aurre egiten laguntzeko.

16.17. Desgaitasuna duten adineko emakumeek haien ordezkaritza-erakundeen politikan parte hartzen dutela ziurtatu behar da. Bestalde, aukera berdinak izan behar dituzte, eta ez dira sexuagatik eta adinagatik diskriminatu behar.

17. DATU-BILKETA ETA ESTATISTIKAK

17. DATU-BILKETA ETA ESTATISTIKAK

17.1. Europar Batasunak eta nazioetako gobernuek neurriak hartu behar dituzte inkestetan generoaren eta desgaitasunaren ikuspegiak dauzkaten datu eta estatistikak txertatzeko, Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Konbentzioko printzipioei jarraiki. Informazioa behar bezala bildu behar da, giza eskubideak eta oinarrizko askatasunak errespetatuz, bai eta printzipio etikoak, babes juridikoak, datuen babesa, konfidentzialtasuna eta pribatutasuna ere. Informazioa horrela bilduta, gobernuek politikak formulatu eta aplikatu ahal izango dituzte, giza eskubideei buruzko nazioarteko itunetan dagozkien betebeharrak betetzeko.

17.2. Aldi berean, Europar Batasunak eta Estatu kideek desgaitasuna duten emakumeek eta neskek jasan dezaketen askotariko diskriminazioa ulertzeko beharrezkoak diren ikerketa eta azterlan kualitatiboak bultzatu behar dituzte (elkarrizketak, oharrak, ikerketa etnografikoa…).

17.3. Estatuak adierazleak erabiltzen baditu oro har emakumeen eskubideen egoerari buruzko jarraipena egiteko, estatistikak desgaitasunaren arabera ere bereizi beharko dira. Ezinbestekoa da genero-ikuspegia kontuan hartzea desgaitasuna duten pertsonei buruz edo haiekin zerikusia dutenei buruz abian jarriko diren ikerketa guztietan, bai eta desgaitasunaren ikuspegia ere emakumeei eta neskei buruzko ikerketetan, kontuan hartzen dela, halaber, elkarreragina. Desgaitasuna duten emakumeek eta neskek beren eskubideak erabiltzeko dituzten oztopoak identifikatzeko eta horiei aurre egiteko erabiliko dira datuak. Estatistikak ez dira desgaitasunaren bereizgarrian bakarrik oinarrituko.

17.4. Herrialde bakoitzak, desgaitasunari buruzko inkesta nazionalak egiten dituenean, Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioko printzipioak kontuan hartzen dituen galdetegi-eredua erabili behar du. Inkestak aintzat hartu behar du desgaitasuna duten emakumeen eta nesken egoera, eta, besteak beste, honako hauei buruzko datuak biltzeko aukera eman behar du: diru-sarrerak, lan-egoera, heziketa, osasun-zerbitzuen irisgarritasuna, sexu- eta ugalketa-eskubideak, amatasuna, eta bizitza pribatuaren eta laneko bizitzaren uztarketa. Ezaugarri horiek betetzen dituen inkesta eginez gero, nazioz nazio egoera zein den aztertu ahal izango da, eta alderaketak egin ahal izango dira eskualde-mailan zein nazioarte-mailan.

17.5. Europar Batasunak Desgaitasunaren Batzordea eratu behar du, desgaitasuna duten emakumeei buruzko berariazko lantaldea izango duena. EUROSTATek, Europar Batasunaren Estatistika Bulegoak, pertsonei buruzko estatistika-datuak sexuaren arabera bereizita argitaratzen ditu; hortaz, Europar Batasuneko Estatu kideek datuak sexuaren eta desgaitasunaren arabera bereiziko dituztela ziurtatzeko eskatu behar zaio.

17.6. Ezinbestekoa da etxez etxe egiten diren inkestetan eta erroldetan datu ofizialak biltzeaz arduratzen diren langile guztiak generoari eta desgaitasunari buruz trebatzea, bai eta datuak interpretatzen eta aztertzen lan egiten duten pertsona guztiak ere.

17.7. Desgaitasuna duten emakumeek eta neskek beren egoerari buruz egiten dituzten deskripzioek lehentasunezko informazio-iturri izan behar dute. Emakumeek beren bizipenez egindako interpretazioa eta horiei buruzko dokumentazioa baliagarriak izan daitezke mundu-mailan haiei buruzko ikerketa-proiektu zabal bat egiteko.

17.8. Emakumeen egoera edo desgaitasuna duten pertsonen egoera aztertzea helburu duten erakunde akademikoak eta ikerketa-erakundeak bultzatu beharko lirateke desgaitasuna duten emakumeek eta neskek bizi duten askotariko diskriminazioaren berariazko egoera azter dezaten, bai eta desgaitasuna duten seme-alaben amen egoera aztertzeko ere. Desgaitasuna duten emakumeek ere ikerketa eta azterlan akademiko horietan parte har dezaten bultzatu beharko lukete erakunde horiek.

18. NAZIOARTEKO LANKIDETZA

18. NAZIOARTEKO LANKIDETZA

18.1. Europar Batasunak eta Estatu kideek nazioarteko lankidetzak eta lankidetza hori bultzatzeak duen garrantzia aitortu behar dute, desgaitasuna duten emakumeek eta neskek duten eskubidea eraginkorra izan dadin; hots, beren giza eskubide eta oinarrizko askatasun guztiez gozatzeko eskubidea eraginkorra izan dadin, mugarik gabe eta gainerakoen baldintza berberetan. Horretarako, neurri egokiak eta eraginkorrak hartu behar dira, nazioarteko eta eskualdeetako erakundeekin eta gizarte zibilarekin batera, eta zaindu egin behar da desgaitasuna duten emakumeen eta nesken interesak kontuan hartzen direla generoaren alorreko zein desgaitasunaren alorreko lankidetzarako politiketan eta programetan.

18.2. Nazioarteko lankidetzak, nazioarteko garapen-programak barne, inklusiboa izan behar du desgaitasuna duten emakumeentzat eta neskentzat. Horrenbestez, ezinbestekoa da haien ordezkari diren erakundeak (mistoak zein berariazkoak) inplikatzea nazioartean, Erkidegoan, nazioetan eta tokian-tokian abian jartzen diren lankidetza-politikak diseinatzean, garatzean, haien jarraipena egitean eta ebaluazioa egitean. Horretarako, informazioa, esperientziak, prestakuntza-programak eta jardunbide egokiak trukatu eta hedatu behar dituzte.

18.3. «Europar Adostasuna» izenekoak dituen printzipioei jarraiki, Europar Batasunak bultzatu behar du garapen-lankidetzarako bere politiketan, programetan eta proiektuetan, bai eta Estatu kideetakoetan ere, generoaren eta desgaitasunaren irizpideak txertatuko direla. Halaber, desgaitasuna duten emakumeen eta nesken aukera-berdintasuna sustatzen duten proiektuak propio egin daitezen ziurtatu behar du.

18.4. Europar Batasunak nazioetako garapen-politiketan desgaitasuna duten pertsonen egoerari buruzko azterlanak egitera bultzatu behar ditu Estatu kideak. Izan ere, horrela, desgaitasuna duten emakumeek eta neskek bizi duten pobrezia-egoera kontuan hartzen duten estrategia inklusibo efizienteagoak eta eraginkorragoak egin ahal izango dira. Generoaren ikuspegia kontuan hartu behar da, halaber, Europar Batasuneko ordezkaritzentzat eta zerbitzuentzat desgaitasunari eta garapenari buruz egindako jarraibideak eguneratzean.

18.5. Garapenerako lankidetza-politikak diseinatzen parte hartzen duten eragile guztiak trebatu behar dira berdintasunaren eta desgaitasunaren gaian, eta ekonomikoki suntsituta dauden zonaldeetan edo garapen bidean dauden herrialdeetan desgaitasuna duten emakumeek eta neskek bizi duten egoerari buruzko informazio garrantzitsua eman behar zaie; hain zuzen, beren giza eskubideei eta oinarrizko askatasunei buruzkoa.

18.6. Europar Batasunak ziurtatu behar du kide izan daitezkeen herrialdeek aurrerapenak egiten dituztela desgaitasuna duten emakumeen eta nesken eskubideak bultza daite-

zen, eta ziurtatu behar du, halaber, Estatu kide izan aurretik laguntza eskaintzeko ezarritako bitarteko ekonomikoez baliatzen direla, haien egoera hobetze aldera.

18.7. Europan, eskualde-mailan eta azpieskualde-mailan aritzen diren erakundeek (esate baterako, Europar Batasuneko erakundeak, Nazio Batuen Europarako Batzorde Ekonomikoa, NBEren agentzia espezializatuek eskualdeetan dituzten bulegoak, Europako Kontseilua, Europako Segurtasunerako eta Lankidetzarako Erakundea, gobernuen arteko beste erakunde batzuk, eta eskualdeetako GKEak, komunikabideetako eskualde-sareak barne) ekintzak garatu behar dituzte, desgaitasuna duten emakumeen eta nesken eskubideak beren programetan eta proiektuetan bultza daitezen.

18.8. Europako Batzordeak, Europako Parlamentuak, Nazio Batuek eta nazioarteko, estatuetako eta tokian tokiko gainerako agentzia emaileek lehentasunezko gaien artean kokatu behar dute desgaitasuna duten emakumeentzat eta neskentzat egindako programak finantzatzea. Dirua bideratuko dute horretarako dituzten programa orokorretara, eta desgaitasuna duten emakumeei eta neskei bideratutako programak edo programa-zatiak finantzatuko dituzte.

18.9. Desgaitasuna duten emakumeen eta nesken eskubideak babesteko interesa izatera bultzatu behar dira Europar Batasuneko Auzotasun Politikan parte hartzen duten herrialdeak; horretarako, politikei buruzko elkarrizketak egin behar dira, eta esperientziak trukatu.

18.10. Europar Batasunak desgaitasuna duten emakumeen eta nesken eskubideak integratu behar ditu aldebiko lankidetzan eta hirugarren herrialdeekiko lankidetzan, epe luzera. Horretarako, garapenerako lankidetza-politika aldeaniztunetarako laguntza ekonomikoa eman beharko du, nazioarteko erakundeei diru-laguntzak eman behar dizkie, eta Europar Batasuneko eta munduko beste tokietako Gobernuz Kanpoko Erakundeen finantzaketan parte hartu behar du, bai eta laguntza humanitarioarekin zerikusia duten politiketan ere.

18.11. Nazio Batuen sistemako erakundeek eta eskualdeetako gobernu-erakundeek laguntza ekonomikoa eta bestelako laguntza eman behar diete GKEei eta desgaitasuna duten emakumeen ordezkari diren erakunde aktiboei, desgaitasuna duten emakumeek eta neskek beren eskubideak erabil ditzaten sustatzeko, gainerako pertsonen baldintza berberetan.

18.12. Desgaitasuna duten emakumeek Europan parte-hartze aktiboa izan dezaten bultzatu behar da, haien ordezkari diren erakundeen bidez -bereziki, Desgaitasunaren Europako Foroa, Emakumeen Europako Lobbya eta horiek herrialdeetan dituzten bazkideak-, giza eskubideei buruz nazioartean dauden itunen jarraipena egiten parte har dezaten. Emakume horiek garrantzia duen informazioa eman behar dute txosten alternatiboe-

tan, desgaitasuna duten emakumeek eta neskek beren giza eskubideei eta oinarrizko askatasunei dagokienez bizi duten egoerari buruz.

18.13. Milurtekoko Garapen Helburuak lortze aldera Europar Batasunean eta Estatu kideetan bideratutako politiketan eta programetan, kontuan hartu behar da desgaitasuna duten emakumeen eta nesken kasuan helburu horiek betetzen diren. Gai horretan izandako aurrerapenak neurtzeko eta emaitzen jarraipen estua egiteko aukera ematen duten adierazleak erantsi behar dira.